ttipi-ttapa
TOKIKOM
2014ko martxoaren 6a | XXXIV. urtea | **609**. zenbakia
www.ttipi.net




**Enaitzen aldeko zozketa Beran → 11**

**LESAKA → 12** Salvador Yanci gogoratuz, txirrindularitza proba

**DONEZTEBE → 18** Menopausiari buruzko tailerra martxoan

**LEITZA → 26** EHko Txistulari Elkarteko batzarra martxoaren 15ean

**BERROETA → 31** Asteburu kulturala martxoaren 14-15ean

**Dabid ANAUT** | 'Euskararen kate hautsiak' liburuari buruz




ARGAZKIA: MIKEL ILLARREGI

# Euskararen zapalkuntzaren kontakizunak

ELKARRIZKETA → 3

Kontaketei izen-abizen eta aurpegiak jarrita, «orain artean azalera atera ez den errealitate bat kontatzeko» asmoz atera du liburua Euskal Memoria Fundazioak, Dabid Anautek egindako lanari esker.

FERIA LESAKAN → 28

## Bidasoko Salgai-Hondarren feria Kultur Etxean

Bera, Doneztebe eta Lesakako merkatarien elkarteek Bidasoko Salgai-Hondarren Feria antolatu dute **martxoaren 15-16rako Lesakan**.



Juliana Inda Goñik 100 urte → 17



**Baztan Abentura Park irekiko du BKZk Beartzunen Aste Santuan** → 31

ERREPORTAJEA → 4-5




ttipi txartela eginez gero 2 liburu opari
Txartela egiteko deitu **948 635 458** telefonora

berako agenda .net

★Martxoa★

Berako agenda

Ekitaldien gaineko informazio gehiago: 012 telefonoan edo www.berakoagenda.net

BERAKO UDALA · berako kultur batzordea

## Bortzirietako emakumearen eguna

Antolatzailea:
Bortzirietako Oinarriko Jendarte Zerbitzuetako Mankomunitatea

**8 LARUNBATA | ELKARRETARATZEA**
13:00 · Toki Onan

FILMA:
¿Y ahora adónde vamos?
19:30 · Kultur Etxean
Sarrera: 3€




**13 ORTZEGUNA | SOLASALDIA: Pentsioak: egiak eta gezurrak**
18:00 · Beralandetan
Antolatzailea: Arkupeak

**14 ORTZIRALA | SOLASALDIA: Isidoro Fagoaga, idazle eta kantari beratarra (German Ereña)**
18:30 · Beralandetan



**28 ORTZIRALA | HAURRENTZAKO IPUIN KONTALARIA: Estitxu Mentaberri**
18:00 · Herri Liburutegian

**29 LARUNBATA | HAUR ETA GAZTETXOEN KANTARI JAIALDIA**
18:30 · Herri Liburutegian
Antolatzailea:
Euskal Kantuzaleen Elkartea




**29 LARUNBATA | BERA KANTARI**
19:00 · Illekuetatik hasita






## ttipi txartela eginez gero 2 liburu opari

* produktua agortu arte

eta
ttipi-ttapa aldizkaria doan
39 dendetan deskontuak
hamabostero zozketa izugarriak
deitu eta informazioa eskatu

ttipi-ttapa
Koskontako bidea, 7 - 1
31770 LESAKA | 948 635 458
www.ttipi.net | info@ttipi.net

«Euskararen kate hautsiak. Hizkuntza zapalkuntzaren memoria» izeneko liburua argitaratu du Euskal Memoria Fundazioak, Dabid Anautek egindako lanari esker. Hizkuntzari lotzen gaituen katea, bortizki etendako transmisio katea eta auzolanean eten eta berreraikitakoa... guztiak bildu dituzte lan sakonean. Kontaketei izen-abizenak eta aurpegiak jarrita, «orain artean azalera atera ez den errealitate bat kontatzeko» asmoz egin dute liburua, bizi izandakoa eta bizi duguna denborak lausotu ez dezan.

**Dabid ANAUT** | Leitzako filologoa eta euskara teknikaria

# «Euskalduna bere etxean arrotza sentitu dela ikustea gogorra da»

E. IRAOLA


UTZITAKO ARGAZKIA
Dabid Anaut.

**Zertan datza liburua?**
Bi hari nagusi dauzka. Batetik, historian zehar euskararen zapalkuntza nola gertatu den jaso dugu. Euskararen historiaren alderdi gordinena da hau, euskarari eman dioten egurra agerian geratzen da. Bestetik, krisi egoera horri auzolanean eman zitzaion erantzuna landu dugu. Aurpegia eta izen-abizenak dituzten pertsonen testigantzak bildu ditugu eta horrek ematen dio interes puntua lanari. Orain artean azalera atera ez den errealitate bat kontatzea baita liburuaren helburua.

**Gizarteak badu zapalkuntzaren berri?**
Uste dut gehienok ezagutzen dugula euskararen zapalkuntzaren gaineko anekdota edo kasu zehatzen bat. Ez da denboran atzera egin beharrik, gaur egun ere euskara zapaldua da. Dena den, zapalkuntzaren garai gordinenaz, frankismo garaiaz hitz egiten ari garenean, zipriztin batzuk bakarrik dakizkigula esanen nuke, gertakari haiek denborarekin lausotzen joan direlako. Agian, zapalkuntza fisikoa baino psikologikoa izan zelako da. Mespretxuek, burlak... eragindako presio handiaren ondorioz euskaraz gehiago ez hitz egitea erabaki zuen jendeak. Beste batzuk berriz, betidanik bizi izan dira debekuarekin eta egoera etsipen puntu batez bizi eta "onartu" izan dute, hura zapalkuntza zela kontziente izan gabe.

**Zein izan da gehien hunkitu zaituen egoera?**
Jipoiak, atxiloketak, kartzeleratzeak, isunak... oso gauza fisiko eta agerikoak bildu ditugu baina batez ere gogorra egin zait ikustea euskalduna bere etxean arrotza sentitu dela. Herrian bertan gutxietsiak sentitzen ziren euskaraz hitz egiteagatik. Ez da ageriko mina, baina bizi izan zutenek oso barruan daramate. Euskaldun elebakarrak ziren asko eta zailtasun handiak izan zituzten besteekin komunikatzeko gaitasunik ez zutelako. Oso ondorio larriak utzi ditu honek eskualde jakin batzuetan, jendeak euskara baztertu zuelako. Kasik erdaraz jakin ez eta hala ere, erdaraz aritzen ziren, beraiek bizi zuten egoera gogor horren erantzulea euskara zela uste zutelako.

EUSKARAREN ZAPALKUNTZA

**«Frankismo garaikoa izan zen zapalkuntzaren erakustaldirik handiena, baina aurretik eta gerora ere izan da. Boterea zapalkuntza moduak moldatzen joan da, baina Estatuen aldetik helburu bat egon da beti eta zoritxarrez euskara izan da beti kaltetua»**

**Zeintzuk dira horren albo kalteak?**
Transmisioa eten zen. Euskaraz ez egitea erabakitzeaz gain, beren seme alabei ere euskaraz ez hitz egitea erabaki zuten askok.

**Zapalkuntzak forma ezberdinak dituela diozu.**
Frankismo garaikoa izan zen erakustaldirik handiena, baina aurretik eta gerora ere izan da. Boterea zapalkuntza moduak moldatzen joan da. Hala, eskolan, soldaduskan, elizan, administrazioan, kalean... modu eta esparru askotan gauzatu izan da. Ipar Euskal Herrian ez zen frankismorik egon, baina hor ere hizkuntza zapalduta egon da eta dago. Ez zuten esan euskara debekatuta dago, horren ordez frantsesez egin behar da eta kitto! izan zen agindua. Gaur egun, XXI.mendean, Nafarroan ere egoera zaila da. Euskara eskolan debekatu ezin dutenez, ingelesa bultzatzen dute, ez dute D eredua Erriberan jartzen uzten... Estatuen aldetik helburu bat egon da beti eta zoritxarrez, euskara izan da beti kaltetua.

**Hala ere, irauteko sen bat bada.**
Gure hizkuntzarekiko dugun atxikimenduagatik iraun du euskarak. Krisi egoeren aurrean erantzuten jakin izan dugu, gainbehera gelditu eta berreskuratze mugimendu bat sortzeko gai izan gara. Egoera beltzean, klandestinitatean eta botere publikoaren babesik gabe, zirrikituak topatu eta auzolanean egoera horretatik irteteko gai izan da euskara. Ospeletik eguterara igaro gara, baina ez da erabateko egutera, euskara bizirik dago baina oraindik badago zer egina.

# Txartela izatea harpidetza soila baino merkeago da




Aurten honelakoak izanen dira txartelak

TTIPI-TTAPA laguntzeak badu saria. TTIPI TXARTELA dutenek badituzte deskontuak gure herrietako hainbat dendetan, %25eko desgrabazioa Errenta-Aitorpenean, hamabostero zozketak eta… aldizkaria etxean hartzea Txartelaren prezioan sartua dago.

Laguntza laguntzaren truk. Ideia hori dago Ttipi Txartelaren atzean. TTIPI-TTAPA FUNDAZIOAren helburua ahalik eta bazkide gehien lortzea da eta, dagoeneko, kasik zazpirehunek aprobetxatzen dituzte Ttipi Txartelak eskaintzen dituen abantailak.

**TTIPI-TTAPA**

Txartela egiteko biderik errazena TTIPI-TTAPAra deitzea da (948635458) eta hor behar adina argibide emanen dira. Dena den, laburbilduz, hona hemen oinarrizko azalpenak: Ttipi Txartela urtero berritzen da, pertsonala da (erabiltzailearen izendeiturak eta karnetaren zenbakia ditu idatziak), dendaren batean erabiltzerakoan Txartelarekin batera Nortasun Agiria ere erakutsi beharko da eta hainbat tokitan urtean zehar deskontu interesgarriak izateko eskubidea ematen du, merkealdi sasoian izan ezik. Deskontuak eskaintzen dituzten dendak zein diren jakiteko eta horietako bakoitzean deskontua zertan eta zenbatekoa den ikusteko, txartelarekin batera liburuxka bat bidaltzen da etxera informazio zehatzarekin.

**HEMENGO DENDAK**

Herriko denda eta zerbitzuetan kontsumitzera animatzea da Txartelaren helburuetako bat. Horiexek ematen baitiote bizitza gure herriei eta horiexek baitira TTIPI-TTAPA bezalako proiektu ttikien laguntzailerik baliotsuenak. Hor ageri da zenbateraino den garrantzitsua hemengo denda eta zerbitzuetan kontsumitzea. Maiz kanpoko ofertak begiratzen ditugu, baina herrietan ere produktu onak daude eta prezioak berdintsuak dira.

**MARTXOAN BIDALIKO DIRA TXARTEL BERRIAK**

Txarteldunek otsailean hartu dute karta bat ea berritu nahi duten galdetuz eta kartarekin batera, iaz ordaindutako kopuruak Errenta Aitorpenean ekarri dien desgrabazioa zehazten duen ziurtagiria. Txartel bakarra duenak 40 euro ordaindu zituen iaz, eta desgrabazioa %25ekoa dela kontuan hartuta, 10 euro itzuliko dio aurten Nafarroako Gobernuak.




**AUTO TAILERRAK** **Berauto** (Bera) | **Datucelay** (Elizondo) | **Sansiñena** (Elizondo) | **Zalain Motor** (Bera) | **AUTOESKOLAK** **Semper** (Bera/Lesaka) **ARGAZKI-DENDAK** **Goiko** (Bera) | **Mena** (Elizondo) | **Zaldua** (Doneztebe/Elizondo) **ARROPA-DENDAK** **Bixkiak** (Lesaka) | **Edurne** (Bera) | **Fantxike** (Elizondo) | **Ipingi** (Elizondo) | **J.J Pikabea** (Doneztebe) | **Kattalingorri** (Elizondo) | **Kukuka** (Doneztebe) **BIZIKLETA TAILERRAK** **Katea-Bike** (Bera) **ESTETIKA** **Amaia** (Doneztebe) | **Arrate** (Doneztebe) **ETXETRESNAK** **Altzuri** (Lesaka) **FOTOKOPIAK** **Bortzirudi** (Bera) | **HAURREN GAUZAK** **Pottoki** (Elizondo) **JATETXEAK** **Posada Oitz** (Oitz) **Elbeteko Posada** (Elbete) **KIROLDEGIAK** **Lesakako Udal Kiroldegia** (Lesaka) **KIROL-DENDAK** **Agara** (Bera) | **Iparla** (Elizondo) **LENTZERIAK** **Kattagorria** (Lesaka) | **MariCruz** (Doneztebe/Elizondo) **LIBURU-DENDAK** **Nafarpress** (Elizondo) | **Maimur** (Leitza) | **NUTRIZIOA ETA DIETETIKA** **Oreka** (Lesaka) | **Kimetz** (Doneztebe) | **Elika** (Bera) **OPARI-DENDAK** **Alustiza** (Doneztebe) | **OPTIKAK** **Intzuri** (Lesaka) | **Ostargi** (Bera) | **PENTSUAK** **Mendaur** (Doneztebe) **TINDATEGIAK** **Jaione** (Doneztebe) **ZAPATA-DENDAK** **Ostiz** (Doneztebe) | **Txinelka** (Lesaka) | **Zangue** (Elizondo)

**ESKUALDEKO DENDETAN DESKONTUAK**

*** Denda bakoitzak bere deskontuak ditu. Zehaztasunak Txartelarekin batera jasotzen den eskuorrian ageri dira*

## OPARIEN ZOZKETAK HAMABOSTERO

*TTIPI TXARTELA izatea harpidetza soilik izatea baino merkeago ateratzen da eta deskontuak dituzten tokietan zenbat eta gehiago erabili, 40 € baino aisa gehiago berreskuratuko dira. Eta deskontuez gain, oparien zozketak hamabostero.*

**TTIPI TXARTELArengatik 40 € ordaintzen bada ere, urtearen buruan kontuak egin ondotik, harpidetzarengatik ordaintzen diren 34 euroak baino merkeago ateratzen da txartelduna izatea, errenta-aitorpena egiterakoan 10 € itzuliko baitio Nafarroako Gobernuak txarteldunari.**
**Eta ez hori bakarrik; zenbat eta gehiago erabili dendetan, orduan eta irabazi handiagoak ditu txarteldunak deskontuei esker.**

Bistan denez, abantaila ez da bakarrik txartela erosten duenarentzat. Tartean onuradun gehiago daude. Lehenik eta behin Ttipi-Ttapa Fundazioa bera. Zenbat eta txarteldun gehiago izan orduan eta sendoagoa izanen baita bere autonomia ekonomikoa eta hori, gaur den egunean diru-laguntzak gero eta urriagoak diren honetan, izugarri inportantea da bizirik irauteko. Eta onuradunen artean kontatu behar dira deskontuak eskaintzen dituzten denda eta zerbitzuak ere, bezeroak fidelizatzeko edota bereganatzeko baliagarri baitzaie Ttipi Txartela.

### HAMABOSTERO SARI INTERESGARRIEN ZOZKETAK

TTIPI-TTAPAri laguntza ematen dioten enpresa eta erakundei esker, txarteldunen artean hamabostero hainbat sari zozketatuko dira aurten ere. Hala nola, **Martiko**ren eta **Arkupe Gozotegia**ren produktuz osatutako loteak, **Oninart** eta **Onddotapunto**ren arropak, **Elkar**, **Erein**, **Ibaizabal** eta **Ttarttalo** argitaletxeek eskainitako liburuak, **Lanku**, **Katxiporreta** eta **Urtxintxa Eskola**ren CD, DVD eta jokuak, **Donostiako Aquarium**, **Naf. Bertsozale Elkartea** eta **Zugarramurdiko Lezea**k oparitutako sarrerak, **Posada Oitz**ek eskainitako 4 otordu eta **Urdi Kiroldegia**k eskainitako sarrerak: 12 sarrera urtean zehar Lesakako Udal Kiroldegirako eta 6 sarrera udan Berako Igerilekuan sartzeko. Hauexek dira orain arte lotu diren sariak. Urtean zehar joanen gara zehazten sari berri gehiago.

### JANTZIAK




**KAMISETAK**

**Oninart** eta **Onddotapunto** arropa marka ezagunen kamisetak zozketatuko dira Ttipi Txartela dutenen artean.

### GASTRONOMIA




**JATEKOAK**

**Posada Oitz**, **Martiko** eta **Arkupe Gozotegia**k eskainiak, produktu-loteak eta otorduen zozketak.

### JOKOAK




**DVD eta CDak**

**Urtxintxa Eskolak, Katxiporreta** eta **Lanku**k argitaratutako DVD eta CDak, kantu eta jokoekin gaztetxoenak dibertitzeko.

### LIBURUAK




**EHUNKA LIBURU**

**Erein, Ibaizabal, Elkar** eta **Ttarttalo** argitaletxeek eskainitako liburuak, haur, gazte eta helduen gozamenerako.

### AISIALDIA - KIROLA




**IKUSKIZUNETAKO PASEAK, MUSEOAK, KIROLDEGI ETA IGERILEKUKO SARRERAK…**

Entretenimendua helburu, era guztietako ikuskizunekin gozatzeko aukera emanen duten sarrerak zozketatuko dira aurten ere: **Urdi Kiroldegia**ren eskutik Lesakako Kiroldegian eta Berako Igerilekuan, **Donostiako Aquariuma** bisitatzeko sarrerak, Zugarramurdiko **Sorginen Lezea** ikusteko bisita gidatuak, bertsolaritza eta musika ikuskizunak…



**Nire txanda**
Koro IRAZOKI

# Gure kontra ari direla!!!

Aldi honetan serioski arituko naiz. Afera kezkagarria baita. Irakurri dut, gauden egoera ekonomiko larri hau ez dela gure kulpagatik sortu (ez dela gertatu "sobera ongi" bizi ginelako). Diote, "krisi" hau ez dela bere baitatik sortu, alderantziz baizik, gure bizimoduaren kontra ongi planifikatu den zerbait dela.

Eta nork planifikatu du? Nor ari da gure bizimoduaren kontra egiten? Itxuraz, badirudi errudunak batez ere politikariak direla, ez baitute batere ongi gestionatzen egoera ekonomiko larri hau. Baina ez omen da guztiz hala. Plan gaixto hau martxan jarri dutenak, munduko ekonomia manejatzen duten botere finantzieroak omen dira (hauen artean politikan sartuak diren batzuk, hori bai).

Eta zer dute gure kontra ba? Gure kontra deus ez, baina beren interesen alde dena: langileei ahal bezain guttien ordaintzea, ahal bezain opor guttien ematea, ahal bezain lan-baldintza estuenak ematea, eta ahal bezain zerga guttien ordaintzea. Guzti hau beren interes ekonomikoak ziurtatzeko.

Halako plan makiabelikoak fikziozko nobela batekoa dirudi baina seguraski egia izanen da.

Egia beldurgarria.

**Ezpala**
Aitor AROTZENA

# Justizia Nafarroan

Ebatsitako auto batean droga kontrabandoan ari nintzela poliziak gelditu eta alkoholemia tasa hirukoiztu nuen. Baina atxilo hartu baino lehen ihesari eman eta bi polizia kolpatu nituen autoarekin, bat hil eta bertzea larri zaurituz. Beharrik Bilduk nere espetxeratzea eskatu duen. ETAren estrategiarekin bat ez egiteko aske uztea exijitu du UPNren gobernuak eta Madrilgoak indultoa eman.

## Nabarmentzekoak



**Joseba LARRALDE**
Berako mendi korrikalaria

Bere lehen partehartzean Nafarroako Kopa irabazi eta proba burutu zuen korrikalaririk gazteena izan zen Larralde. Nafarroako Mendi Federazioak Luis Mari Pikabea saria eman dio.



**Juliana INDA GOÑI**
100 urte bete ditu Sunbillan

Donamarian jaio, Lesakan bizi, Afrikan, Bartzelonan eta Donostian lan egin eta azken 8 urteotan Sunbillan bizi den emakumeak ehun urte bete zituen otsailaren 19an. Aunitz urtez!



**Ion ZEBERIO**
Elizondoko txirrindularia

Transbidasoa-Euromaster-Iñurrieta eskualdeko txirrindulari beteranoen taldeak denboraldiko lehen garaipena lortu zuen otsailaren 22an Tafallan, bere sprintari esker.

**Atzera begira ➜ 1999-III-11** / TTIPI-TTAPA 249 zk.



## Aresoko eta Leitzako hizkeraz solasean Mikel Olanorekin

*Areso eta Leitzako hizkerak, bertako hitz eta historian barrena* liburua idatzi zuen Mikel Olano leitzarrak duela 15 urte. «Leitza herri haundia izan da eta hiriburu baten funtzioa bete du. Honela, gipuzkerak eragin haundiagoa izan du Areson Leitzan baino» zioen. Leitza eta Aresoko hizkerak ere Nafarroakoak direla aldarrikatu nahi izan zuen: «Iruñeko euskaldunberri eta euskaltzaleen artean gehiago jotzen da ekialdeko (Baztan, Bortziriak, Aezkoa, Ultzama…) hizkeretara, gipuzkerarekin kontraste edo ezberdintasun gehiago dutelako… Gureak itxura gehiago du gipuzkerarekin, baina Nafarroako hizkera da, noski!».

ttipi-ttapa

**Argitaratzailea** Ttipi-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA
Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxa (+34) 948 63 54 57 • **info@ttipi.net**

**Zuzendaria** Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Erredakzioa** Eneritz Iraola **Publizitatea** Usoa Vicente, Amaia Odriozola **Berriemaileak** Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Altzuri, Joseba Urrotz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Goñi, Joana Guerendiain, Martin Bertiz, Nerea Telletxea, Mattin Larralde, Juan Mari Barriola, Joxean Ortega.

**Fundazioaren Presidentea** Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

**Lege Gordailua** NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

**Erakunde laguntzaileak** Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkartea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

**2013ko harpidetza sariak**

| | | |
|---|---|---|
| Hego Euskal Herria ...........40€ | Europa .................59,50€ | Baztan, Urdazubi eta Malerreka ...............34€ |
| Ipar Euskal Herria .........59,50€ | Amerika eta Australia .........124€ | Leitza .....................................17€ |

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

Bortzirietako Euskara Mankomunitateak diruz lagundua

Kolaborazioak

# Safari

Joxe ITURZAETA

- Hortxe heldu dituk… Berrehun bat...
- Marokotik ihesi, gure besoetara, zuzen… Zatozte, zatozte, gaixoak…
- Lasai egon. Esperatu nire agindua –sargentoak, prismatikoetatik begira.
Ixilik, agente guztiak olatuen gainean saltoka heldu diren txalupei begira gelditu dira.
- Pisha, batzuk iñeriken heldu dituk!
- Erne mutilok! Prest armak! –agintzen du sargentoak.
- Baietz gehiago –entzuten da apal apal.
- Hogei euro?
- Eduki –aurreko ahotsak.
- Ixo, Requena! –sargentoak. - Orain! Tiro egin!
Trumoiek airea hausten dute. Uretan, olatuen orroen gainetik, iheslariek entzun dituzte. Benetako balak direlakoan, hiltzeko zorian daudela pentsatzen dute. Ikarak bereganatzen ditu iheslarien begiak. Tiroka ari dira! Gibelean Marokoko gendarmeak, itsasertzean Espainiako guardia zibilak. Amak, dardarka, semea estutzen du, bere buruarekin umetxoarena estaliz. Elkarren kontra kolpeka, urak irentsi nahi ditu.
- Orain! Gasak! –nabarmen sargentoaren ahotsak. –Txalupetara!
Uretakoak txalupetara igotzen saiatzen dira. Hemendik eta handik tiraka, txalupak kulunkaka. Indarrik ez. Desesperazioa. Aireak, instant batean, txistu egiten du. Gas bonbak iritsi eta muin itogarria askatzen dute. Iheslariek ez dute ezer ikusten, gasak begiak erretzen ditu, baita arnas bideak ere. Eztulak. Oihuak. Negarrak. Gizakia harrapakina bihurtua.
Lehorrean, sargento estratega. –“Helburua lortua. Baina kondenatu horietako batzuk lehor aldera segitzen dute igeri!”.
- Prest pilotak –agintzen du. Bere gizonek, fite obeditu. Makina engrasatua da hauxe…
- Oroitzen haiz? –Pablok.
- Hogei euro –erantzun dio Requenak, segur.
- Tiro! Orain! –sargentoak.
Berriz asots infernua, eztanda: Gomazko pilotak gorputzen bila abiatu dira.
- Bat! –oihukatzen du Requenak, kontent, lehenbizikoari eman baitio.
- Baita nik ere! –entzun du.
- ¡Blanco! –berriz, Requenak.
- ¿Blanco? “Negro” izanen duk! Ja, ja! Bertze bat! Txalupakoa!
- ¡Mecagüen la Virgen del Pilar! Txalupekoa nerea zuken! Gezurretan ari haiz!
- Berriz aipatzen baduk Ama Birjina damutuko haiz! –Zaragozako Pablok.
- Mutilak, lanera! –sargentoak. –Moro hauek ezin ditek Tarajal zeharkatu!
Oihuak eta besoak itsasoak xurgatu ditu. Haratago, batzuk lortu dute lehorrera irixtea, baina han Flores eta bere gizonak daude, hesitik hurbil. -“Zuzen hesiaren bertze aldera botako ditu. Lan gutxiago”.
Itsasoan ez dago mugimendurik. Legarraren gainean, zenbait gorpu, olatuek astinduta.
- Geldi! –sargentoak, eskua goratuz.
- “Kaka zaharra!” –Requenak. “Hiru, bertzerik ez”.
- Egoera kontrolpean dugu –sargentoak gizonei. -Ertza garbitu. Bizirik daudenak Floresi eraman. Requena, txalupa hartu eta zaborrak bildu. Zuek hiruek, lagundu.
Abiatu da Requena. Zeregina ezagutzen du: Gorpuak, pilotak eta bonben karkasak bildu eta bizirik daudenak txaluparekin bere uretara erremolkatu.
- Ez utzi bakar bat ere, bertzenaz, gobernu delegatuak zikiratuko nau –sargentoak, gibeletik.
- Bai, ene sargentoa –Requenak. Mañoa hurbildu zaio.
- Aurkitzen ditugun gorpuek soilik balio dute.

# Erlijioa ikastetxeetan

Pello APEZETXEA

Gaurkotasun handiko gaia dugu, eztabaidatsuen zerrendakoa, pribatu eta publiko kontzeptuen artean maiz nahasia, azken hamarkadetan jendeak gero eta gehiago gutietsia. Hainbat eskolatan ia erabat baztertua, hurbileko zenbait lekutan berorren ikaskuntza %10 ikaslek bakarrik eskatzen duena. Eta % zenbat irakaslek maitatua?
Galderen izakia omen da jendea, beti galderak sortzen eta haien erantzunak bilatzen aritzen dena. Zergatik gertatu da eta gertatzen da erlijio gutieste hori? Erantzun anitza eta konplexua du galdera honek. Eta lehenik solasaren erranahia argitu behar dela iduritzen zait, erlijio solasarena. Izan ere, zer da erlijioa, ikastetxeko erlijioa? Batzuentzat eskolako erlijioa eta kristau katekesia gauza bera dira. Helburu bera dute eta irakaskuntza berdina, gaztea kristautzea, edo kristautasunean kontzientzia sakontzea eta aberastea. Hau da, Kristoren ezagutza eta bizimodu planteamentua haintzat hartzea. Horregatik dute apezpikuek irakaskuntz horretan hainbertzeko esku sartzea: eurek edo bere ordezkariek izendatu behar dituzte irakasleak, euren kristau planteamentuaren araberako ikastaroak onetsi eta gero.

> «Gure historiaren hainbat gorabehera eta bilakatze ez dira ulertzen ahal erlijioaren ezagutza eta historia bazterrean utzita. Ez dut erran nahi horrekin nor berak fededun behar duela izan, erlijio eta erlijioaren historiaz jabetzeko»

Erlijioa gaia, ordea, eskolan bertze modura ere sar daiteke. Erlijioak trastzendentzia jendearen alderditzat jotzen du, bizitzan eragina duen trastzendentzia. Gizakiaren historian zehar eragin izugarria izan du kontzeptu eta bizipen horrek, anitzetan gizakien kulturekin elkartu edo etsaitu dena, eta boteredunen eta herrien arteko borrokak sorrarazi eta iraunarazi dituena. Gure historiaren hainbat gorabehera eta bilakatze ez dira ulertzen ahal erlijioaren ezagutza eta historia bazterrean utzita. Ez dut erran nahi horrekin nor berak fededun behar duela izan, erlijio eta erlijioaren historiaz jabetzeko.
Erlijioa horrela planteatu eta, argi dago ez dela erlijio bat soilik gogoan hartu behar gai honetan. Fenomenoa anitzez zabalagoa da, eta ikuspuntu zabalagotik begiratu behar dena. Kulturak anitz diren bezala, erlijioak ere anitz baitira. Ikuspegi honekin egokiago konprenitzen ahal dela uste dut erlijioak eskolan izan dezakeen lekua.

## Irakurleak mintzo

# Gure gorputza, gure erabakia. Abortua doan eta aske osasungintza publikoan

Idoia GILLENEA DENDARIETA (Nafarroako Abortatzeko Eskubidearen aldeko batzarreko kidea)

Azkenean Madrilgo Gobernuak , eliza katolikoaren ultrakonserbadoreenak diren sektoreen laguntzarekin, “Jaio ez dena babesteko Lege Organikoa” deitzen duten legearen aurreproiektua aurkeztu du. Denek ulertzeko moduan: emakumeek beren amatasunaz askatasunez erabakitzea ukatuko duen legea.

Honek gaurko egoerarekin konparatua gibelerat egiten duen pausoa da, 1985eko legearekin zegoen egoera baino gogorragora itzuliz.

Lege zorrotzago batek ez du abortuen jaitsiera maila ekarriko baizik eta bide klandestinoetan egitea, segurtasun maila gutxiagorekin emakumeentzat. Ikerketek diotenaren arabera sexu hezkuntza politika egokiek jaisten dituzte arrisku praktikak eta ondorioz baita abortuak ere.

Berriz ere legearekin, emakumeen gorputza kontrolatzeko eskubidea urratzea eta sexualitatea eta ugalketa kontrolatzea dira lortu nahi diren helburuak.

Honek guztiak aspaldiko garaietara eramaten nau, gure amatxik eta amek kontatzen zizkiguten kontuetara: larrua jotzean “gibelerako martxa” egitea bekatua zen; apaizek ezkon-gauean egin beharrekoaren gaineko aholkuak ematen zituzten; emakumeak azpian jarri baino ez zuen egin behar, gizonak egin behar omen zuen gainerakoa; ezkondu gabeko emakume bat haurdun gelditzen zenean elizak eta gizarteak baztertzen zuten. Eta abar. Aholku eta mehatxu hauek entzunda, zaila da sexuak eta gozamenak zerikusirik dutela ikustea. Istorio hauek entzun, eta haien eragina geure heziketan nozitu ondoren, askatasuna lortzeko bidea urratu beharra ikusten dut. Feminismoaren bidea bertzerik ez dugu.

Eta hau sarrera bat bertzerik ez da. Nafarroako Abortatzeko Eskubidearen aldeko Batzarrak, (Elizondon, Arizkunenean martxoaren 21ean, arratsaldeko 6etan), bere esku duen informazioa eskainiko du, interesgarria dela uste duelako. Gai hauetaz eta bertzeez solasteko, hausnartzeko eta eztabaidatzeko aukera izanen dugu. Beharrezkoa den hausnarketa.

# Inauteriak: Nor da nor? Mozorroaren gibelean eta aitzinean denak berdin

Oianko GARDE JAUNSARAS (Plazara Dantzara Herri Ekimenaren izenean)

Neguaren akabaila inauteriekin etortzen da: sinboloak, naturako elementuak, trapuak, maskarak, errituak han eta hemen; jostetak, dantzak, dibertsioa, satira, kritikak eta arau hausteak nonahi. Edo rol aldaketak desberdin sentitzeko, egunerokotasuna hausteko.

Horra inauteei buruz harritzen ez gaituen zerbait: duela mende erdi bat Frankok inauteriak debekatu zituen eta hala ere zenbait lekutan klandestinoki egiten ziren. Orabidean konparazione. Faxismoa zen.

Gaur egun jendartea aldatuz doa. Bakoitzaren zeregina, eginbeharra eta rola eraikitzen doaz, aldaketarekin eraikitzen: emakumezkoak eta gizonezkoak lantegirat joaten dira; emakumezko eta gizonezkoek etxeko-lanak konpartitzen dituzte; aisialdia ere bai; berdin leku publikoak: ostatua, bestak, kinto-bestak, zikiro-jateak… eta doike, inauteriak. Ez daude debekatuak eta konpartitzen ditugu. Agian bakoitzak hartzen dugun lan, espazio zein aisialdiaren banaketaren inguruan ere hausnartzea ez legoke gaizki… baina tira, hasi gara!!

Bai, inauteriak publikoak izaki gizonezkoenak ziren duela 50 urte artio. Gaur egun ez da arazorik emakumezkoa mozorrotzen bada, eskean ibiltzen bada. Ez Baztanen sorik. Badakigu ez hain urruneko herrietan oraindik ere pausu hori ez dutela eman. Animatzen ditugu besta horietaz gozatzera. Eta baztandarrak ere animatzen ditugu inauteek egin duten ibilbide bera mutildantzekin egitera.

Nork erabakitzen du parte hartuko dugun edo ez? Dantzatuko dugun edo ez? Bestetako tradizioetan parte hartzeko eskubidea dugun edo ez?

Tradizioak jendartearen islada dira eta hauetako batzuk zurrunak dira arras: aldaketari beldurra, konpartitzeari beldurra, kontrola galtzeari beldurra. Horren aitzinean “beti hola izan da” errex erraten dute zenbaitzuek, “beti” horrek kalte egiten dien pertsonek zer pentsatzen duten edo nola bizi duten hausnartu gabe.

Kaltetuak garenak gure pentsamendua agertu dugu eta behin eta berriz agertuko dugu, errepikatuko dugu leku publiko guziak konpartitzea lortu arte. Denena dena denendako izan artio.

Mozorroaren barnean dena ez dakizu emakumezkoa den edo gizonezkoa; bat edo bertze izan daiteke eta ez da aldatzen. Mutildantzetan zergatik ez? Zer da aldatzen dena dantzaria emakumezkoa delarik?

# Toti Martínez de Lezea Beran

Sandra ETXEGARAI, Mikel MAYORDOMO eta Josu IPARRAGIRRE (Berako Toki Ona Institutuko ikasleak)

Urtarrilaren 31n, Toti Martinez de Lezea Berako kultur etxean egon zen, DBH I.go mailako ikasleekin.

Bigarren hiruhilabetean, Erregearen mezularia liburua irakurri genuen, eta liburu hori Totik idatzitakoa denez, Toki Ona instititutuak Berara etortzeko proposamena egin zion. Totik baietz esan zuen eta, horren ondorioz, urtarrilaren 31n Berako kultur etxera etorri zen. Idazlearen bisita Espainiako Kultura Ministerioak ordaindu zuen. Kultur etxeko ateak herri guztiarentzat zabalik zeuden. Hitzaldia 12:00etan hasi eta 13:15ean bukatu zen.

Lehendabizi, Toki Onako zuzendariak eta lau ikaslek Toti Martinez de Lezeari buruzko aurkezpen txiki bat egin zuten. Ikasle horiek Mikel Mayordomo, Aroa Canabal, Jon Echenique, eta Naroa Zapian izan ziren.

Bere liburuaz eta bere bizitzaz hitz egin zuen Totik, eta esan zigun

**IRAKURLEAK MINTZO** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta: **info@ttipi.net**
Posta: **Koskontako bidea, 07-1, 31770 LESAKA**
Tel.: **948 63 54 58** Faxa: **948 63 54 57**

## Irakurleak mintzo



UTZITAKO ARGAZKIA

Toti Martinez de Lezea idazlea Toki Ona institutuko ikasleei liburuak sinatzen Berako Kultur Etxean.

1992 urtean hasi zela idazten, apustu batengatik. Bere lehen liburua mitologiari buruzkoa izan zen, asko gustatzen baitzaio euskal mitologia. Erregearen mezularia liburua azaltzen hasi zen, eta gero Nur liburuari buruz hitz egiten hasi zen. Nur-en liburuak bere bilobarengan pentsatuz idatzi ditu, abiapuntua errealitatea da, eta bestea fikzioa. Esan zuen 8 ordu egiten duela lan egunean. Bere azken proiektua mitologiari buruzko liburu bat da. Bukaeran denbora bat utzi zuen liburuak sinatzeko eta argazkiak ateratzeko.

Bere hitzaldia, egindako galderetan oinarritu zen, eta elkarrizketa hagitz interesgarria izan zen. Toti Martinez de Lezea euskaldun berria denez, euskaraz hitz egiten saiatu zen, baina batzuetan, gaztelaraz erantzun zuen. Idazlea hagitz alai egon zen hitzaldian, eta hagitz modu berezian azaldu zuen dena. Horregatik asko gustatu zitzaigun. Hagitz esperientzia polita izan zen.

## Barkamenak goizutarrei

Jose Manuel MUÑOZ (Arano)

Azkeneko alean azaldu zen neri egindako elkarrizketa bat,eta galdetu zidaten nire gustoko herriko paraje bat aipatzeko. Mandoegiko tontorra etorri zitzaidan burura konturatu gabe berez Goizuetako herrikoa dela eta ez Aranokoa. Jakin, badakit, baina niretzat inguruko parajeak ederrak badira, ederrak dira herri batekoak edo bestekoak izanda ere, eta horregatik ez nuen detaile hori kontuan hartu. Barkamena eskatzen dut.

## Prentsatik bildutakoak



«Tokiko ekonomiari eta gurea bezalako hurbileko dendei babesa ematen die euskoak. Erabiltzeko hagitz erraza da, eta bezeroekin eta kontabilitatean ere ez dago arazorik. Gero eta gehiago erabiltzen dugu, gure ekoizleei ere euskotan ordaintzen diegu, beti tokiko ekoizleak izan ditugulako. Euskoa erabilita ziur gaude tokiko produktuei emanen diegula lehentasuna».

**Marianne SAGE**
Sarako harakina
ENBATA.INFO 2014.02.17



«Nahiz eta sistema kapitalistaren barruan gauden, saiatzen bagara inguruko kontsumoa indartzen, tartean geratzen diren irabaziak enpresa handiei ez joatea lortzen dugu. Edozein markatako esnea erosten baduzu, behi horiek bazkatuak daude munduko beste puntako soja edo artoarekin. Gure kasuan hemengo gaiekin bazkatzen dira».

**Aitor AZKARATE**
Anizko esneki ekoizlea
NAF. HITZA 2014.02.21

PPSOE, Euskal Telebista digitala Nafarroan orain!
Berria erosi taldea












# BORTZIRIAK

**GIZARTEA** ➜ MARTXOAREN 8A

## Emakumearen Egunaren inguruan hainbat ekintza antolatu dituzte

Emakumeen bosgarren mendi itzulia eginen da igandean Lesakan

**TTIPI-TTAPA**

Emakume Langilearen Nazioarteko Egunaren harira zenbait ekitaldi antolatu ditu Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak.

Martxoaren 7an, Arantzan, dokumentala eskainiko dute 20:00etan Baskulan.

Etxalarren martxoaren 7an, arratsaldeko 6etan *Pink Saris* filma eskainiko dute Kultur Etxean.

Martxoaren 8an, Berako Kultur Etxean filma eskainiko dute 19:30ean eta Igantziko Biltokin *Pink Saris* filma 19:00etan.

Martxoaren 9an, Lesakan eginen da Bortzirietako emakumeen bosgarren mendi itzulia. Goizeko 9etan abiatuko dira plazatik eta 13:00etan eginen da elkarretaratzea Plaza Zaharrean. 14:00etan bazkaria Kattun (Aitzinetik izena eman behar da 948 635036 telefono zenbakian). 17:00etan mendi proiekzioa eskainiko da Kattun.

Martxoaren 11n, filma eskainiko da Berako Kultur Etxean 13:30ean.

Martxoaren 22an, azkenik, autodefentsa ikastaroa emanen da Arantzako eskolako gimnasioan, 10:00etatik 13:00etara.



UTZITAKO ARGAZKIA

### Boluntarioen Eguna ospatu dute Berako San Jose Zahar Etxean

Elkarrizan boluntario taldeko kideek musutruk egiten duten lana eskertzeko omenaldia antolatu zuten otsailaren 19an, Berako San Jose Zahar Etxean. Zahar Etxeko bizilagunekin egotera etortzen dira boluntarioak, lagunduz, kantatuz, irteeretan garraiolari lanak eginez eta lan hori eskertu zieten adinekoek. Jose Ignacio Muruaren musika eta bertsoak, dantzak eta berendua izan zituzten.



UTZITAKO ARGAZKIA

### Haziaren Eguneko bigarren topaketa egin zen Beran

Haziaren Egunean jende aunitz bildu zen Rikardo Baroja eskolaren aitzinaldean. Mahai batzuk paratu zituzten ekarritako haziak erakusteko eta nahi zuenak hartzeko eta hazi bakoitzari buruzko ezagutzak ere elkarbanatu zituzten.

KSAT
TELEKOMUNIKAZIOAK
ANDONI LASAGA APEZTEGUIA
➤ TDT instalazioak
➤ TB instalazioak (satelite, lurrekoak)
➤ Instalazio indibidualak eta kolektiboak
➤ Satelite bidezko interneta
➤ Digital + banatzaile ofiziala
T. 637 40 86 40 · 31780 BERA
andonimatxako@gmail.com

GIZARTEA → EKAINAREN 7AN EGINEN DA

# Enaitzen aldeko zozketa erraldoia antolatu dute

## Txartelak euro batean salgai daude herriko 11 lekutan

TTIPI-TTAPA

Enaitzen gelako gurasoek *Enaitz gara* ekimena antolatzen ari dira. Jardueraz betetako maratoi erraldoia jarri dute martxan: horien artean, lehenbizikoa, herriko merkatarien laguntzaz eginen den zozketa erraldoia. Mota guztietako opariak dituzten hamar zare handi osatu dituzte, orain arte Goia kinkaila denda izan denean ikusgai daudenak.

Txartelak Beran ohiko salmenta-puntuetan euro batean daude salgai: Hamaiketako, Garbi cofee, Sarobe, Igone, Pagola, Purienea, Amaleun, Xuga, Beti Jai, Errekalde eta Zubiondo. Zozketa ekainaren 7an izanen da, bertze ekitaldi polit eta ikusgarri baten bukaeran.

### Bigarren eskuko merkatu ttikia

Labiaga ikastolak bigarren eskuko merkatu txikia antolatu du martxoaren 23rako kiroldegiaren aitzineko patioan. Igandearekin, 09:00etatik 15:00etara paratuko dira postuak eta salerosketarako aukera bikaina izanen da.

Postua jartzeko interesa dutenek ikastolara deitu behar dute (948 630172) eta postua jartzeko 10 euro ordaindu beharko dira.

### Isidoro Fagoagari buruzko hitzaldia

Isidoro Fagoaga idazleari buruzko hitzaldia emanen du Beralandetan German Ereñak martxoaren 14an 18:30ean. Tenore eta musikari bezala aski famatua izan zen Fagoaga, baina bere literatur lana ezezagunagoa da.

### Caro Barojaren mendeurrena

Julio Caro Barojaren jaiotzaren mendeurrena prestatzeko bigarren bilera eginen da martxoaren 10ean, astelehenean 19:00etan Beralandetan.

### Liztor beltzari buruz solasaldia

Bortzirietako udalek antolatuta liztor beltzari buruzko solasaldia eskainiko da martxoaren 8an, larunbatean 10:00etan kultur etxean.



UTZITAKO ARGAZKIA

### Manttale Ttiki taldeak 20 zuhaitz landatu ditu Landagaitan

Manttale ttiki taldeak hogei zuhaitz landatu zituen otsailaren 8an Landagaitan. Atletismo eskolako haurrek, mendi irteera bat egin zuten Usategietatik Landagaitara, eta han helduez lagunduta landatu zituzten zuhaitzak. Larunerako bidean, lehenengo maldan paratu dituzte zuhaitzak. Puntu honetatik pasatzen da apirilaren 13an jokatuko den Berako Mendi Maratoi Erdia.



UTZITAKO ARGAZKIA

### Rikardo Baroja eskolan sukaldaritza tailerra

Rikardo Baroja ikastetxean sukaldaritza tailerra antolatu zuten otsailaren 14an. Tailer honen helburua gurasoengan euskararen erabilera bultzatzea izan zen. Bertako sukaldariak, Belenek, guraso eta seme-alabei "euskal pastelaren" berri eman zien. Tailer hau Euskara Lan Taldeak ikasturte honetarako antolaturiko egitarauaren barrenean kokatzen da. Honetaz gain, urte osoan, dantza tailerra astean behin egiten ari dira hainbat guraso eta hemendik aitzinera ere, euskara praktikatzeko zenbait jarduera eskainiko zaizkiei gurasoei.

Xirgil ileapaindegia Jalone Goya
Altzate 1 - BERA
Tfnoa: 948 631 462

Arturo
Arropak | Etxerako osagarriak | Lentzeria | Mertzeria
Altzate, 20 BERA T. 948 630 136

elika Dietetika eta elikadura
IXIAR ANDUEZA LANZ
Dietista-Nutrizionista
Kolegiatu zenbakia NA221
Itzea, 6 behea 31780 BERA
t. 948 631 283 | 645 708 512
e. elikabera@hotmail.com

# LESAKA

**GIZARTEA ➜** URTEKO BATZAR OROKORREAN 95.000 EUROKO AURREKONTUA ONARTU ZUEN BETI GAZTEK

## Salvador Yanci zena gogoratuko du txirrindularitza proba batek

Mastegiko kobazuloen ingurua ere auzolanean txukuntzen ari da elkartea

**Aitor AROTZENA**

Beti Gazte elkarteak urteko ohiko batzarra egin zuen otsailaren 8an. Gaur egun 1.030 bazkide ditu eta horietatik 25 bat bertzerik ez ziren agertu egoitzara, baina halere urteko 95.000 euro inguruko aurrekontua eta hainbat berrikuntza proposatu eta onartu ziren.

Horietatik garrantzitsuena, elkarteko zuzendaritza batzordean hiru hamarkadetan eta azken 16 urteetan presidente izan zen Salvador Yanci zenaren omenez antolatuko den martxa zikloturista izanen da. Maiatzaren 11n eginen da eta Beti Gazte elkarteak ez ezik, Gure Txokoa, Baztandarra, Urtxintxa eta Erreka txirrindularitza taldeek parte hartuko dute antolaketan. Ibilbidea ehun kilometro eskasekoa izanen da, Lesakan hasi eta bukatu, eta Beran antolatzen zenean, Miguel Indurain martxaren ibilbide laburraren antzekoa.



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

***Herri Ihauteriak* erakusketaren azken egunak Kultur Etxean**

Euskal Herriko inauterietako mozorro, irudi eta idatziak biltzen dituen *Herri ihauteriak* erakusketa ikusgai dago Harriondoa Kultur Etxean martxoaren 6a bitarte. 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara irekiak daude ateak.

Zuzendaritza batzordean ere izan da aldaketaren bat edo bertze. Honela, Lurdes Danboriena da idazkari berria. Gainera, sokatira taldea berriz ere lanean hasi denez, atal horretako arduradunak izanen dira Agustin Zubieta eta Beñardo Iantzi.

### MASTEGIKO KOBAZULOAK BERRESKURATZEN

Mastegiko kobazuloak berreskuratzen ari da Beti Gazte auzolanean. Futbol zelaiaren gaineko aldean, herritar aunitzek ezagutzen ez dituzten bi kobazulo daude. Aspaldiko urteetan sasiak hartuak daude eta desbrozatzen eta ingurua txukuntzen ari dira. Inguru hagitz polita eta ikusgarria da eta behin lanak bukatuta, parke antzeko bat egin nahi dute, kobazuloen aitzinean gelditzen den zelaian mahai eta eserlekuak jarriz. Segurtasunerako hesi bat ere paratuko da eta haritz amerikar zuhaitzak landatu dituzte. Bigarren fase batean pasealeku bat egitea ere ez dute baztertzen. Mastegiko kobazuloak gaitzat hartuta ipuin lehiaketa egiteko asmoa ere bada.

Bertze berrikuntzen artean, Zuhaitzaren Eguna antolatzeko asmoa du Beti Gaztek, eskolako eta ikastolako gurasoen laguntzaz. Ezagutu Dezagun Lesaka lehiaketa abendutik Aste Santura aitzinduko da eta ipuin kontalaria ekarri nahi dute sari banaketara. Beti bezala, futbola, mendiko irteerak, ajoarriero lehiaketa, margoketa azkarreko lehiaketa, mendi bizikleta martxa eta ohiko ekitaldiekin segituko du Beti Gaztek.

**MARTXOAK 15**

## Lip-duba grabatuko da Gure Esku Dago Egunean

**A. AROTZENA**

Martxoaren 15ean, Gure esku dago eguna ospatuko da Lesakan. Bertan, 11:30ean "Gure esku dago" lipdub-a grabatuko da, Bortzirietako hainbat talde eta elkarteren partehartzearekin. Herritar guztiak daude gonbidatuak bideoan parte hartzera. Ondoren, pintxoak eta sagardoa egonen dira jubilatuetako arkupetan. Furgoneta informatiboa egonen da egun osoan ekainaren 8an Iruñea eta Durango batuko dituen giza katean parte hartzeko metroak eta kamisetak erosteko aukera eskainiz.

## Aita eta aitatxien eguneko bazkaria

San Fermin jubilatu elkarteak aita eta aitatxien eguneko bazkaria antolatu du martxoaren 19rako, 14:00etan. Txartelak hilaren 12a baino lehen hartu behar dira elkartearen ostatuan 20 euro ordainduz eta guttienez hamar lagunek eman beharko dute izena bazkaria egiteko.

Bertze aldetik, mus, seien eta despiste txapelketak hasiko dituzte martxoaren 10ean erretiratuek.












GIZARTEA ➜ OTSAILAREN 16AN

# Naturzaleek antolatutako irteera Oihanberrira



ARGAZKIA: AINHOA BERRUETA

Oihanberrira atera zen naturzale koadrilla. Beheitian, zuhaitz eder bati begira.

## Ekitaldi arrakastatsua izan zen

**Irune eta Itsaso**

Azken alean "Baso ahaztuak" dokumentala eta solasaldia aipatu genituen eta orain gaineratu behar dugu ekitaldiek segida izan zutela otsailaren 16an. Zugarramurdiko bidean dagoen Oihanberri basora irteera antolatu zen. Hogei lagun inguru elkartu ziren eta parajea ezagutzeaz gain bertako landare eta zuhaitz espezieak aztertzeko aukera izan zuten; baita ikusi eta entzuten ziren hegaztiak ezagutzen saiatzekoa ere.

Oihanberri aberatsa da pago zein haritz motetan eta garai batean erabiltzen ziren kisulabe ugari daude. Egur-ikatza egiteko txondorren arrastoak ere ikusi ahal izan zituzten bertan. Goiz ederra pasatzeaz gain aunitz ikasteko aukera izan zuten bakoitzak zekiena taldearekin konpartitzen zuelako.



ARGAZKIA: LIERNI ALKORTA

### Etxalarko gazteak sagardotegian

Otsailaren 15ean herriko 50 gazte inguru joan ziren Hernaniko Iparragirre sagardotegira. Giro eta umore ederrean pasa zuten eguna eta goizaldeko 4etan itzuli ziren.



XAGU LIBURUDENDA
Tel. / Fax BERRIA:
948 638 232
Koskontako bidea, 7
(osasun-zentroaren parean)
31770 LESAKA
zatoz denda berria ezagutzera!!
• LIBURUDENDA
• KOLORETAKO FOTOKOPIAK
• USBtik EGINDAKO INPRIMAKETAK
• ESKANERRAK
• ESKOLA MATERIALA
• INFORMATIKAKO MATERIALA
• BULEGORAKO MATERIALA
• EGUNKARIAK, ALDIZKARIAK

USOA Nekazari kooperatiba
· Bertan egindako pentsuak, bertze markak eta ekologikoak
· Ongarriak · Burdin tresnak
· Insektizidak · Edariak · Haziak
· Botikak (errezetarekin)
Etxez etxeko banaketa egiten da
Kalefakzioa eta ibilgailuendako gasolioa
Tel. eta Faxa: 948 63 52 14 • ETXALAR

Frutas y Verduras ERRANDONEA, s.l.
BILTEGIA 948 630 102
FAUSTINO 647 810 152
Bidasoa, 76 - atea 21-22
31780 BERA

ERREKALDE
PLATER KONBINATUAK
OSTATUA
PINTXOAK
BOKATAK
TFNOA: 948 630 259 BERA

LABE ZAR
Tel: 948 631 076 · BERA

# ARANTZA

**GIZARTEA** ➜ AGENDAN APUNTATZEKO HITZORDUA

## Apirilaren 5ean Pirritx, Porrotx eta Marimototsen ikuskizuna izanen da frontoian

Pelle Ttiki Haur Eskolak antolatu du

**Nerea ALTZURI**

Euskal Herriko pailazo ospetsu eta entzutetsuenek aurten herrira bisita eginen dute. Apirilaren 5ean herriko frontoian, azken ikuskizunaz gozatzeko aukera izanen da Pelle Ttiki Haur Eskolaren alde.

### Sinadura bilketa

Arantzako Udalak Espainiko bandera Herriko Etxeko balkoian jartzeko agindua jaso zuen. Borondatez kontra, behartuta, jartzeko erabakia hartu behar izan zuen.

Inposaketa honen aitzinean, herritar talde batek gaitzespen idatzia banatu zuen etxez-etxe, sinadura bilketa abiatuz zenbait aldarrikapen egiteko: batetik, udaletxean espainiar bandera ikusteak atsekabea edo samina eragin duela adierazteko; bertzetik, sentimenduen zapalkuntza adierazten duenez, guziz errepudiatzen dutela erratoko; hirugarrenik, nafar ikurra eta ikurrina ikur bakarrak direla aldarrikatzeko, gainetik bertzerik onartu gabe; isunen mehatxupean ere sentimenduak ez dituztela aldatuko adierazteko inposaturiko bandera udaletxean paratuz; eta azkenik, «bandera espainiarrik ez» ozenki aldarrikatzeko.

16 urtetik gorakoa izanez gero, sinatu daiteke herriko denda, ostatu, kooperatiba eta Herriko Etxean. Aipatzekoa da, Arantzan izan ditugun bi sentsibilitate politiko ezberdinetako alkateek (ezker abertzalea eta EAJ) sinatu dutela. Martxoaren erdialdera arte egin daiteke.




ARGAZKIAK: MIKEL LARRETXEA, AITOR ELEXPURU

### Inauteriak joan dira eta…

Argazki politak utzi dituzte. Mozorro Xuriek ortzegunean eskolara egindako bisitan harrera beroa jaso zuten eskolako lagunengandik. Eskolako ikasleek ere, mozorro besta izan zuten. Mozorro xuri gazte eta haurrek baserrietako eskeak egin zituzten giro ederrean. 130 lagun bildu ziren ortziraleko Aterpeko bertso afarian eta 30 emakumek Pabloenean afaldu zuten. Mozorro aunitz eta ikusgarriak izan ziren larunbat arratsaldean batez ere, eta *Ezinning* kuadrilako artisten musika dantzagarriak guraso eta haur mozorrotuekin plazako berendu tartea animatu zuen. Ilunabarrean, aizkolari, harrijasotzaile eta motozerrazaleen saioak eta errifen zozketa izan ziren. Goizaldera arte, Ai Ene taldeak inauterietako azken orduak girotu zituen.



### Eskiboko bideko erortza

Negu busti eta haizetsua doa, tartean, eguraldi ederreko egunak izaten badire ere. Eguraldi txarrak, ordea, maiz horrelako irudiak uzten dizkigu. Harritzar ederra ikusten da bidera eroria. Zorionez, ez zuen kalte fisikorik eragin. Ez zuen ez pertsonik ez ibilgailurik ere azpian harrapatu.

948 631 218
Kanttonberri 1, BERA
BIZIKLETEN SALMENTA ETA KONPONKETA
KATEA-BIKE

ANTZUZELAI S.L.
ZINTARRIAK • ADOKINAK • ZOLAK
Tel. 948 631 317 • Faxa. 948 631 587
Irungo errep. BERA
www.antzuzelai.com
info@antzuzelai.com

Aintzinaldeak, angeluak, orma antzinakoak, leihoak, ateak, arkuak, pilareak, tximiniak, erlaizak, moldurak, zokaloak, hilarriak, marrazkiak


F. LANCHAS
Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

Javier Manterola
Tekniko instalatzailea
iturgintza • gasa
kalefakzioa
Tfnoa:629449602•BERA

GIZARTEA ➜ BIRZIKLAPENA BULTZATZEKO

# Edukiontzi berde isolatuak kendu eta konpostalekua jarri dute herrian

Edukiontzien ondoan ezin dela traste handirik edo etxetresnarik utzi gogorarazi dute

Joxean ORTEGA

Udaletik herrian konpostalekua badugula gogorarazi nahi dute. Bertan kimatutako arbaztak eta adarrak botatzeko lekua bada, baita etxeetan egindako obra txikien hondarrak (adreiluak, teilak,..) botatzeko edukiontzi bat ere. Edukiontzi honetara ezin da egurra edota altzaririk bota.

Gai honekin lotuta, aipatu azken hilabeteetan gure herriko edukiontzien ondoan azaldu diren etxe-tresnak biltzera gure etxeetara etortzen direla Zabor Mankomunitatekoak telefono honetara deituz gero: 672045734. Ezin da traste haundirik utzi edukiontzien ondoan. Ea poliki-poliki denon artean gure betebeharrak zeintzuk diren ikasi eta betetzen ditugun! Guztion onerako da eta.

Igantzin gelditzen ziren edukiontzi berde isolatuak aurreko egunetan kendu dira. Neurri honekin Zabor Mankomunitateak eta Udalak birziklapena bultzatu nahi dute. Hasieran sor litezkeen eragozpen eta gaizki-ulertuak gainditu eta gure ingurumena errespetatu eta zaindu behar dugula ulertzea nahi lukete eta hori lortzeko denok ahalegin txiki bat egitea.

### Etxe izenen errotuluak

Joan den urtean herriko euskara batzordeak etxeei izenak paratzeko kanpaina egin zuen. Guztira 90 herritarrek eskatu zuten beren etxeetan errotulua paratzea. Geroztik jende gehiagok agertu du bere etxean errotulua paratzeko interesa.

Hori dela eta, euskara batzordeak berriz eman nahi die aukera, errotulua paratu ez zuten etxe guztiei eskaera egin dezaten.

Errotulurik paratu ez duten etxeetan eskutitz bat hartuko dute, zer egin behar duten azalduko diena. Eskaera Igantziko Udalean aurkeztu behar dute, martxoaren 28a baino lehen. Baldintzak iazko berak dira: errotulua paratu nahi duenak 10 euro ordaindu behar ditu. Prezio horretan sartuak dira errotulua egitea eta paratzea.

### Kantu zaharren bazkaria

Aurten ere, Igantzin Kantu Zaharren Bazkaria izanen dugu. Martxoaren 16an, igandearekin izanen da Herriko Etxean 14:00etan hasita. Txartelak betiko lekuetan salgai daude iazko prezio berean: 25 euro. Izena emateko epea martxoaren 10ean bukatuko da, beraz, bixi-bixi ibili.

### Nafarroako Kirol Jokoak

Aurtengo Nafarroako Kirol Jokoetan Igantziko neska-mutiko talde batek parte hartuko du. Martxoaren 9an Berriozarren hasiko dira jokoak eta finala Igantzin bertan jokatuko da apirilaren 6an.

### Igerilekuan lan egiteko deialdia

Martxoaren 20ra arte aurkeztu litezke eskaerak udaletxean. Lanaldia ekainaren 14tik Irailaren 14ra luzatuko da. Interesa dutenek informazio gehiago eskuratu dezakete udaletxean.



UTZITAKO ARGAZKIA

### Giro ederrean joan dira inauteriak

Mozorroek eguraldiak lagunduta baserri eta etxeetako bizilagunak alaitu dituzte beraien kanta, dantza eta bromekin. Giro ederrean joan dira inauteriak, baita eskolan ere, Ortzegun Gizeneko eskearekin eta ortziraleko antzerkiekin.







# KULTURA

**BERTSOLARITZA** ➜ BARDOAK TXAPELKETA

## Lehen galbahea pasatu duten sei talde hasiko dira bigarren fasean

Baztan-Malerrekako *Etxeko Kontuk*, Leitzako *Harrapazank*, Lesakako *Zortziko haundiena* eta Baztango *Lepatanatuek 2* taldeek lortu dute sailkatzea

**TTIPI-TTAPA**

Otsaileko azken asteburuan bortz saio jokatu ziren Bardoak taldekako txapelketako lehen faseari bukaera emateko, Uitzi, Etxarri-Aranatz, Leitza eta bi Barañainen. Aurreko saioen gisara, bertsozale erantzun bikaina eta bertsoekin gozatzeko parada ederra izan zuten. Lehen fasea bukatuta, sei talde pasa dira martxoan hasiko den bigarren fasera, horietatik lau eskualdekoak: Baztan-Malerrekako *Etxeko Kontuk*, Leitzako *Harrapazan*k, Lesakako Zortziko haundiena eta Baztango *Lepatanatuek* 2, txipiroien itzulera. Horiekin batera, Iruñeko *Bertze Maldikoak* eta *12 obario eta 11 pedrada* (tartean da Erika Lagoma lesakarra ere) sailkatu dira bigarren fase horretara.

Sei saio jokatuko dituzte bigarren fasean, bi bueltara. Horrela gelditu dira saioak: Zortziko Haundiena-Lepanatuek 2; Bertze Maldikoak-Etxeko Kontuk eta Harrapazank-12 obario eta 11 pedrada.

Saioen datak eta lekuak oraindik erabat zehaztekoak daude hau idazterakoan, baina martxoaren 7tik 30era izanen dira. Horietako bat, **martxoaren 8an**, larunbatean Iturengo Herriko Etxeko ganbaran 19:00etan eginen den bertso-merenduaren ondotik jokatuko dute Etxeko Kontuk eta Bertze Maldikoak taldeek. Bertze bat **martxoaren 14an,** ortziralarekin jokatuko dute Elizondon Baztango Lepatanatuek 2 eta Lesakako Zortziko Haundiena taldeek. Bigarren fasetik hiru talde pasako dira **apirilaren 12an** Lesakan jokatuko den finalera.




ARGAZKIA: NAFARROAKO BERTSOZALE ELKARTEA

Lesakako Zortziko Haundiena eta Leitzako Beti berandu… ta gauza onik ez taldeak aurrez aurre izan ziren otsailaren 22an Leitzako Atekabeltz gaztetxean. Lesakarrek lortu zuten bigarren faserako txartela.

**LITERATURA** ➜ *EREMUEN BERKALIFIKATZEA* LANAREKIN

## Luis Gardek irabazi du Xabier Lete poesia saria

**TTIPI-TTAPA**

Luis Gardek irabazi du Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatutako Xabier Lete poesia saria. Lehiaketaren bigarren edizioan 23 lan aurkeztu dituzte eta idazle doneztebarraren *Eremuen berkalifikatzea* lana saritu du Joxerra Gartziak, Tere Irastorzak, Jose Angel Irigaraik eta Lourdes Otaegik osatutako epaimahaiak. Garderen laneko poemetan "arnasa handiko ahots poetikoa" aurkitu dute, "oreka bereziz elkartzen dituena gizarte kritika eta metapoetika". Hala, epaimahaiaren arabera, "liburuaren hausnarketa ildo nagusietako bat bihurtu du egungo krisi garaiari egokitzen zaion poesia moduaren bilaketa, apaindura hutsala izatetik aldenduta". Saritutako lana Pamiela argitaletxeak argitaratuko du.











# SUNBILLA

**OSPAKIZUNAK ➜** OTSAILAREN 19AN

# Juliana Inda Goñik ehun urte bete ditu

Donamarian sortua, azken zortzi urteotan herrian bizi da

**Maider PETRIRENA**

Juliana Inda Goñi anderea omendu zuten otsailaren 19an, hain zuzen ere egun horretan 100 urte bete zituelako.

Juliana Inda Goñi Donamarian sortu zen 1914ko otsailaren 19an. Haurra zela, bere senide eta gurasoekin batera Lesakara joan zen bizitzera. Urteetan Afrika, Bartzelona eta Donostian lanean ibili ondoren, Lesakara itzuli zen bere gurasoak zaintzeko. Azkeneko 8 urteetan Sunbillan bizi da seme-alabatzat dituen bere ilobekin batera. Bere 100. urtebetetzea familia eta lagunekin zoriontasun handiz ospatu du.

## Ulibeltzen batzarra

Ulibeltzak Elkarteko batzar orokorra egin zen otsailaren 22an. Bertan aurreko aktaren onespena, 2013ko kontuak onartu, elkartean egindako obrei buruz hitz egin eta bukatzeko bazkide berri baten sarrerari buruz hitz egin zen. Ulibeltzak Elkarteak 205 bazkide ditu. Hurrengo bilera ez zen zehaztu noiz izanen den baina honetan junta aldatzea tokatzen da.

## 12 ikasle berri datorren ikasturtean

Datorren ikasturtean, 2014-2015 ikasturtean, 12 ikasle berri sartuko dira Sunbillako eskolan. Lehen aldiz eskolan hasiko direnak 9 izanen dira eta bertze 3ak bertze ikastetxe batetik etorriko dira.



ARGAZKIA: AMETS INDA

Juliana Inda, bere senideekin batera Herriko Etxean.



ARGAZKIA: AMETS INDA

Juliana Indak ehun urte bete ditu.

### Ba al zenekien ?

**Sunbillako bi bikotek parte hartuko dutela Euskal Herriko mus txapelketako finalean martxoaren 8an Heletan**



ARGAZKIAK: JAIONE OTXANDORENA

## Arkupeak elkartekoen eguneko mus txapelketa

Arkupeak Elkarteko jubilatuek beraien besta ospatu zuten Ariztigain kanpinean. Bazkaria baino lehen 8 bikotek musean jokatu zuten eta ondorengoa izan zen beraien sailkapena. Irabazleak, Oryo eta Santiago, bigarrenak Fulgencio eta Patxiku, hirugarrenak Frantxiska eta Teo eta laugarrenak Migeliko eta Felix. Lau bikoteak ageri dira argazkietan, Juan Antonio Ibarra Arkupeak elkarteko herriko ordezkariarekin batera. Giro onean pasatu zuten eguna. Osotara 49 jubilatuk izan zuten aukera egun eder honetaz gozatzeko.



ARGAZKIA: JOKIN PETRIRENA

## 1959-1960an sortutakoen kinto besta

1959-1960an sortutakoak kinto besta ospatu zuten otsailaren 22an Ariztigain kanpinean. Hogeita bat lagun elkartu ziren eta hagitz giro onean pasa omen zuten afarian.

# DONEZTEBE

**GIZARTEA ➜** MARTXOAN ESKAINIKO DIRA

## Menopausiari buruzko tailerrak antolatu ditu Osasun Zentroak



UTZITAKO ARGAZKIA
Mendaur institutuko ikasleak, Doneztebarrak elkarteko Ana Mari Arregirekin.

40 eta 55 urte arteko emakumeei zuzenduak

**TTIPI-TTAPA**

Menopausiari buruzko tailerra antolatu du Doneztebeko Osasun zentroak, «etapa hau naturaltasunez eta osasunez» bizitzen ikasteko helburuarekin. Parte hartzeko martxoaren 6a baino lehen deitu behar da 948 456001 telefonora.

40 eta 55 urte bitarteko emakumeei zuzendutako tailerrak martxoaren 10, 14, 20 eta 24ean eskainiko dira Malerrekako Mankomunitateak Donezteben duen egoitzan, goizeko 9:30etik 12:30era.

### Erreka Xabierraldira

Urtero bezala Xabierraldian parte hartzeko autobusa antolatu du Erreka Kirol Elkarteak. Martxoaren 15an, larunbata, izanen da irteera. Apuntatzeko Titi Ostatura joan behar da edo 948 450 271 telefonora deitu. Autobusaren prezioa 17 eurokoa izanen da Errekako bazkide ez direnentzat eta 14 eurokoa bazkideentzat.

Irteera goizeko 5etan izanen da Doneztebetik eta Iruñean geldituko da autobusa. Handik Xabierrera dauden 42 kilometroak oinez egin beharko dira. Gero autobusak Xabierren hartuko ditu ibiltariak eta Doneztebera itzuliko dira.

**GIZARTEA ➜** DONEZTEBARRAK ELKARTEAK

## Emakumearen Egunaren harira kanpaina berri bati ekin dio

**TTIPI-TTAPA**

Doneztebarrak elkarteak, Emakumearen Eguna oinarri hartuta, kanpaina berri bati ekin dio. "Emakume izateagatik eta beti hemen egoteagatik" elkarteko saltoki eta zerbitzuetan martxoaren 8ra arte erosketa egiteagatik 50 euroko 7 erosketa baleren zozketan parte hartuko dute bezeroak. Horretaz aparte, beti ondoan dagoen emakume horri esaldi berezi bat eskainiz bertze lehiaketa batean parte hartzeko aukera ere izanen da eta 100 euroko erosketa balea lortuko du esaldirik politenak. Martxoaren 8an, 20:00etan eginen da baleen zozketa eta sari banaketa Santa Luzia Plazan. Aitzinetik 18:00etan, Udalak antolatutako zine-foruma izanen da Herriko Ostatuan. *¿Y ahora adónde vamos?* filma eskainiko da eta gero solasaldia eta luntxa eskainiko da.

Kanpaina honetaz aparte, emakumearen eguna dela eta, Mendaur institutuko DBHko 2. mailako ikasleek iniziatiba bat izan dute eta merkatari elkarteari kolaborazioa eskatu diote. Ikasleek historian nabarmendu diren emakumeei buruzko kartelak prestatu dituzte. Kartelak kartulina lilan doaz, gainean emakume desberdinen argazkiak itxekita doaz eta ondoan testu deskriptibo bat. Doneztebarrak elkarteko saltoki eta zerbitzuetan jarriko dituzte ikusgai kartel horiek, erakustokiak lilaz jantziz.









**GIZARTEA ➜** ORAINDIK EZ DIRA BATERE ONGI BEREIZTEN HONDAKINAK

# Interesa piztu du herrian konpostajearen gaiak

Zaborrontzian zer botatzen den ikusteko karakterizazio eguna egin zen otsailaren 26an

**Fermin ETXEKOLONEA**

Interesa paratzen ari da jendea konpostajearen gaiaren inguruan. Dozena bat lagun bildu ziren otsailaren 26an, karakterizazioa egiteko. Oraindik biziklapena gaizki egiten dugula agerian geratu zen, denak nahasian botatzen ditugula ikusi baitzen proba honetan. Herriko zaborrontziak hustu eta bertan zer botatzen dugun aztertu zen. Beira nahiko ongi bereizten da, baina organikoa, plastikoa eta papera dena nahasian botatzen da eta horrek, azken helburua den birziklatzea zaildu eta zenbait kasutan, ezinezkoa egiten du. Gaizki egindakoa ikusita, ea jendeak kontzientzia hartu eta poliki-poliki hobetzen goazen.

## Literatur solasaldiak

Aurreko alean aipatu genuen Garbiñe Ubedaren liburu bat aztertuko dutela Literatur solasaldien baitan apirilaren 3an, arratsaldeko 7etan estalpean eginen den literatur hitzorduan. Liburuaren izenburua *Hobe isilik* da eta ez *Hobe bizirik*.

## Jaiotza

Noa Bendoiro Telletxea jaio zen otsailaren 20an. Lerro hauen bidez, zorionak Xabier eta Iratxe gurasoei eta amatxi Mari Carmen eta amatxi Mari Pazeri.

## Jubilatuen besta

Zubieta, Ituren eta Elgorriagako Arkupeak elkarteko jubilatuen besta otsailaren 23an egin zuten Elgorriagako Hilarionen. Zubietatik dozena bat erretiratu joan zen eta giro ederrean pasatu zuten eguna.

## Gure Esku Dago

Gure Esku Dago, Durango eta Iruña arteko Giza katean parte hartzeko gonbitea jaso dute herritarrek. Malerrekan martxoaren 14an eginen dute aurkezpena Doneztebeko zineman. 108. Kilometroa osatu behar du Baztan-Bidasoaldeko jendeak.





ARGAZKIA: KATTALIN PAUL
Oraindik ez dugula ongi bereizten ikusi zen otsailaren 26an.



# URROZ

**OSPAKIZUNAK** ➜ DUELA HOGEI BAT URTE BERRESKURATU ZEN OHITURA

## Gazte jendea gogotsu ibili da inauterietan

### Ttikienak ere ibili ziren mozorroturik

**Joseba URROTZ**

20 urte baino gehiago pasatu dira denbora batez inauteak ospatu gabe egon eta berriz egiten hasi zirenetik, eta aurten ere eutsi zaio ohiturari. Bistan da belaunaldi aldaketa ere izan dela, orduan hasi zirenak 40 urteren bueltan izanik, haien lekukoa jende gazteak hartu baitu.

Ortziralean hasi ziren afariarekin eta 30 lagun inguru bildu ziren. Larunbat eguerdian abiatu eta baserriz-baserri ibili ziren puska biltzen, herrira hurbiltzerako gauerdia zuten. Ostatuan afaria izan zuen bertze taldetxo batek ere, helduxeagoak eta eskean ibili ez zirenek ere bertan afaldu zuten. Egun berean, ttikienek ere herriko etxetan barrena bueltaxka egin zuten, mozorroturik, puska bila.





ARGAZKIAK: MAIDER AROTZENA ETA JOSEBA URROTZ
Gazteak inauterietan ageri dira goitian. Malerreka kantuz ekimenean parte hartu zutenak eliz atarian kantari beheiti.

Igandean bazkariarekin eman zitzaien aurtengo inauteei akabila.

### Malerreka kantuz

Aitzineko alean aipatu gabe gelditu zen, baina otsailaren 1ean Malerreka kantuz ekimena ospatu zen. Neguko eguraldia izanik ere, jende mordoxka elkartu zen kantuekin berotasun pixko bat paratzeko. Plazan, eliz atarian eta frontoian kantatu zen. Otordu goxoarekin borobildu zuten eguna.

# ITUREN

**KULTURA** ➜ MARTXOAREN 8AN

## Bardoetako saioa eginen da Herriko Etxeko ganbaran

### *Etxeko kontuk* bigarren fasean ariko da

**Arkaitz MINDEGIA**

Bigarren faserako sailkatuta, gogotsu dago *Etxeko kontuk* taldea. Joan eta etorrian jokatuko da finalerako txartela. Hasteko Herriko Etxeko ganbaran martxoaren 8an eginen dute lehen saioa *Bertze Maldikoak* taldearen kontra. 19:00etan bertso merendua izanen da eta gero saioa. Sarrera 6 eurotan izanen da.

### Librea ninçana ikuskizuna

Ortzadar Euskal Folklore elkarteak *Librea ninçana* ikuskizuna prestatu du. Ikuskizun honen entsaio orokorra egin zuten otsailaren 23an Herriko Etxeko Ganbaran eta egun guzia eman zuten musika, dantza, kanta eta poesia entsaiatzen, martxoaren 9an Bilboko Arriaga antzokian estrenatu baino lehen. Fernando Katolikoaren tropek Nafarroako erresuma nola inbaditu zuten kontatzen da ikuskizunean. Ordubeteko ikuskizun poetiko, sinbolikoa eta errealista egin du taldeak.



ARTXIBOKO ARGAZKIA
Ortzadar taldea lanean.

**Ba al zenekien ?**

**Txoriene saioan herriko jendea egon dela. Roberto sukaldariaz aparte, iloba ere han egon zen, beraien errezeta goxoa prestatzen**






# ELGORRIAGA

**GIZARTEA** ➜ NAHI DUENAK ALKATEARI JAKINARAZI BEHAR DIO

## Gas naturala herrian sartzeko proposamena egin du Gas Navarrak



**Mattin LARRALDE**

Gas naturala sartzeko proposamena egin du Gas Navarra enpresak. Orain Donezteberaino zabaldua dago, baina 20-25 famili elkartzen badira herrira ekarriko dute.Nahi duenak alkateari deitu eta berak apuntea hartuko du.

### Bainu etxea zabalik

Otsailaren 14an berriro ideki da bainu etxea. Urtero bezala urtarril eta otsailaren zati batean oporrak hartu eta obrak eta berrikuntzak egiteko aprobetxatzen dute. San Valentin egunean ideki eta asteburu jendetsua izan zuten.

### Errotako zuhaitzak

Errotako parajean, zuhaitzak luzeran kimatu edo trasmoistu dituzte. Tamaina moztuz apalagoak izanen dira eta beraz itzala gehiago eginen dute. Hiru herritarrek egin dute lan guztia, Manuel, Martixpe eta Aitorrek.

### Arkupeak bazkaria

Otsailaren 26an Zubieta, Ituren eta Elgorriagako Arkupeak elkarteko kideek urteko bazkaria izan zuten Hilarionen. Giro ederrean pasatu zuten eguna.

### Konpostajea

Kospostajea egiteko ordubeteko ikastaroa eginen da martxoaren 7an eta konpostagailua biltzeko eguna ere izanen da.

PREST

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

GURE IKASLEEN AHOTAN



**Miren LASAGA GOYENETXE** ➜ MUko ikaslea

## «Gradu hau aukeratu nuen ingeniaritzako eta medikuntzako gauzak ikasten direlako»

Ingeniaritza Biomedikoa graduko 1.go mailan ari da etxalartarra



**Zergatik aukeratu zenuen Biomedikako Ingeniaritza? Eta zergatik MONDRAGON UNIBERTSITATEAn?**
Ingeniaritza Biomedika aukeratu nuen gradu berri bat izateaz gain bi jakintza nahasten dituelako. Alde batetik ingeniaritzari dagozkion gauzak ikasten ditugu, baina baita medikuntza ingurukoak ere. Nik betidanik zalantzak izan nituen bi adar horien artean eta horregatik aukeratu nuen gradu berri hau ikasten hastea. MUn ikastea erabaki nuen gradua jartzen zuten lehenengo aldia delako eta baita alde praktikoari garrantzi handia ematen diotelako ere.

**Nola baloratuko zenuke orain arte bizitako esperientzia?**
Esperientzia oso aberasgarria izan da alderdi guztietan. Akademikoki metodologia erabat desberdinera ohitu naiz. Pertsonalki ere esperientzia ona izan da. Klasean ez gara ikasle asko eta horrek jendearekin harremanak izatea errazten du. Gainera pisu bat konpartitzen ari naiz. Bertako konbibentzian gauza asko ikasten dira, eta baita bakoitza bere kabuz moldatzen ere.

**Nola definituko zenuko Goi Eskola Politeknikoan jasotzen duzun ikasteko metodologia? Alde praktikoari garrantzi asko ematen zaio?**
Ikasteko metodologian garrantzi handia ematen zaio alde praktikoari eta seihileko bakoitzean emandako teoria guztia praktikara eramaten dugu bukaeran proiektu baten bidez. Kurtsoko bi proiektu hauetan alde praktikoa oso garrantzitsua da eta teorian emandako gauza asko egiaztatzeko aukera ere bada. Bestalde esan beharra dago irakasleak beti eskuragarri eta laguntzeko prest daudela.

**MUtik zer da gehien gustatzen zaizuna? Eta zerbait hobetzeko?**
Lehenago aipatu dudan bezala alde praktikoari garrantzi handia ematen zaio unibertsitate honek eta hori gustuko dut. Hau MUren berezitasun bat da, ez da ohikoa beste unibertsitateetan. Zerbait hobetzeko? Momentuan ez zait hobetzeko punturik bururatzen. Denbora gutxi daramat unibertsitaten eta orain arteko esperientzia ona izan da alderdi guztietan.

www. mondragon.edu/prest

# BEINTZA-LABAIEN

**OSPAKIZUNAK** ➜ OTSAILAREN 22AN

## Giro eta umore ederrean joan dira aurten ere inauteriak





ARGAZKIAK: ARANTXA ITURRALDE
Gazteak dantzan ere aritu ziren puskak bildu bitartean. Txikienak ere mozorrotu ziren.

### Gazteek Labaingo ostatuan egin zituzten otorduak eta haurrek Beintzakoan

**Arantxa ITURRALDE**

Joan den otsailaren 22an, Beintza Labaingo herriak inauteak ospatu zituen urteroko ohituri jarraituz. Eguraldi onaren laguntzarekin goizetik gazteak puska biltzen jardun ziren etxez etxe (argazkian ikus daitekeen bezala) trikitilariak musikarekin girotzen zituzten bitartean.

Bazkari eta afariak Labaingo ostatuan egin zituzten gazteek. Herriko haurrek, berriz, (beste argazkian ikus daitekeen bezala) Beintzako ostatuan bazkaldu zuten gurasoekin batera. Besteak beste, zopa, fritoak, oilaskoa eta postrea jateko aukera izan zuten. Giro ederrean igaro zituzten guztiek inauteak.

# DONAMARIA

**GIZARTEA** ➜ OTSAILAREN 22AN HERRIKO OSTATUAN

## Kantu zaharren afaria arrakastatsua izan zen





### Ehun lagun bildu ziren

**Izaskun GOÑI TELLETXEA**

Donamariko Herriko Ostatuan Kantu zaharren afaria izan zen otsailaren 22an. Ehun bat lagun hurbildu ziren afarira. Afari ederraren ondotik, Bankako Artzainen laguntzaz giro ederra izan zen, kantu zaharrak kantatzeko eta dantzan aritzeko, primeran pasatzeko aukera ezin hobea izan zen.

Afaltzera hurbildu ziren guztiek abestiak ikasi eta abesteko aukera izan zuten banatu zituzten liburuxken laguntzaz. Giro paregabea izan zen, afal orduan eta baita afalondoan ere. Mila esker denei!!!

### Futbito partidak frontoian

Igande goizean, frontoian, ttikienek futbito partidak jokatu zituzten. Haurrak hiru taldetan banatu zituzten eta zenbait partida egin zituzten elkarren aurka jokatuz. Irabazi edo galdu, denek primeran pasatzeko aukera izan zuten, kirol pixka bat egiten zuten bitartean.

**GIZARTEA ➜** OTSAILAREN 22AN

# Manuel Alemani omenaldia eskaini diote

Martxoko ikastaro, bidai eta hitzaldiak ere prest dituzte

**Fernando ETXEBERRIA**

Arkupeak Elkarteko jubilatu talde batek omenaldia eskaini zioten Manuel Alemani otsailaren 22an, 80 urte bete zituen egunean. Goiz Mendi taldekoak ziren bertaratutako gehienak, eta mendizaleak izaki, Amaiur inguruan ibilaldi bat egin zuten lehenik. Amaiurko Gazteluaren hondarrak ikusi eta Manuelen jaiotetxea bisitatu zuten gero. Mendialde jatetxean egindako hamaiketako bikainarekin bukatu zuten ibilaldia. Omenduari makila dotoreak oparitu zizkioten. Opari egokia alajaina, gorputzak iraun artean paseoan segi dezan. Gazte garaian, Frantzia aldera joan behar izan zuen eta ondoren Estatu Batuetara ere bai, artzain aritzera. Bueltatu zenean, Ana Huarterekin ezkondu zen eta Iruñako Toki Ona taberna ireki zuten. Bertan lan egin zuten erretiroa hartu arte. Bi seme-alaba eta bost biloba dituzte.

## Martxoko ekintzak

Otsailean herriz herri Arkupeak eguna ospatu ondotik,ekitaldi berriak antolatzen hasia da jubilatu elkartea. Otsailaren 13an bilera egin zuten Arakindegian elkarteko presidenteak, Nerea Telletxea informatikako irakasleak eta ikastaroetan parte hartuko dute 25 ikasle berrik. Bi taldetan banatuta, martxoaren 11n hasiko dituzte klaseak. Denera 20 klase izanen dira eta astearteetan, arratsaldeko lauretatik aurrera elkartuko dira. Doneztebe, Elizondo eta Beran ere informatikako ikastaroak eskainiko dituzte. Horiez gain, sendabelarren ikastaroa eta memoria tailerra ere izanen dira Donezteben.

Martxoaren 11n, urteroko hitzorduari hutsik egin gabe, Arkupeak Elkarteko 110 bazkide Xabierrera joango dira. Martxoaren 18an berriz, maletak hartu eta Valentziara eginen dute bidaia 55 kidek. Hiriko zenbait monumentu bisitatu ondotik, *cremá de los ninots* famatua ikusteko aukera izango dute. Gero, Val D'Uixo, Salou eta Tarragona aldera joanen dira.

Bestalde, Patxi Urrutiak pentsioen inguruko hitzaldiak eskainiko ditu martxoaren 6an Arizkunenean eta 13an Beralandetan.





ARGAZKIAK: FERNANDO ETXEBERRIA.

Goian, Manueli omenaldi eskaini zion taldea. Behetian, Amaiurtik barna ibilaldia egin zuen taldea Manuelen jaiotetxearen aurrean.



ARGAZKIAK: FERNANDO ETXEBERRIA.

Arkupeak Elkarteko Kideek bilerak egin dituzte, aurten antolatu nahi dituzten ekitaldi, hitzaldi eta ikastaroen inguruan hitz egiteko.



# EZKURRA

**GIZARTEA** ➜ OTSAILAREN 26AN

## Ezkurrako inguruetatik barna

34 lagunek egin zuten lau ordu eta erdiko mendi ibilbidea

**Fernando ETXEBERRIA**

Oinetakoak jantzi eta makila eskuan, Barranka ostatuaren aurrean elkartu ziren otsailaren 26an goizeko 8:30ean Arkupeak elkarteko 34 kide. Ezkurrako mendi eta inguruak ezagutuz, lau ordu eta erdiko ibilbidea osatu zuten. Perralekutik abiatu, Zuparrobiko haize errotetara igo eta Basakaitzko maldan behera jeitsi ziren eta ibilbidea herrigunean bukatu zuten. Bideko seinaleei segika, paraje ederrak ikusteko aukera izan zuten. Ongi irabazitako bazkaria egin zuten gero. Eguerdiko ordubietan elkartu ziren Barrankan eta babarrunak sakramentuekin eta oilaskoa txilindron erara esperoan zituzten mahaiean. Egun ederra pasa zuten eta dagoeneko datorren ibilaldia ere antolatu dute. Data zehatza ez dakigu baina apirilean egitekoa da. Doneztebetik abiatu eta Donamaritik barna Gaztelura igotzeko asmoa dute, gero Doneztebera Legasatik barna itzultzeko.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA
Kaxkoan elur pixka bat topatu arren, eguraldi bikaina izan zuten lagun 34 mendizaleek.

### Bertso afaria

Ezkurrako Udalak bertso afaria antolatu du martxoaren 8an, Emakumeen Nazioarteko Egunean. Barranka ostatuan, 20:30etik aitzinera Julio Soto eta Amets Arzallus bertsolarien saioaz gozatzeko aukera izanen da. Horiekin batera, Irune eta Itsaso trikitilariak aritzeko dira saioari musika ikutua ematen. Udalak jakinarazi du ez dela soilik Ezkurrakoentzat antolatutako ekitaldia eta beraz, herritarrak eta kanpotarrak gonbidatuta daudela. Animatu zaitezte!

# SALDIAS

**OSPAKIZUNAK** ➜ BASERRITAKO BUELTARIK EZ DA IZANDU AURTENGOAN

## Giro ederrean joan da inaute bazkaria

2015eko inauteak ilbeltzaren 30ean eta 31n

**Markel LIZASOAIN**

Giro politean joan da inaute bazkaria. Jende franko bildu zen, haur, gazte eta adindu. Soinulari Itxaso eta Irune etxalartarrak ziren, eta klase guzietako piezak jo zituzten poliki asko. Baserritako bueltarik ez da izandu, eta aurten haurrak penatan geldituak dira, prestatuak baitzituzten puska biltzeko endrezu eta trapu guziak. Gaztea, berriz, Labainara joan zen puska biltzera, han ere inauteak eta. Heldu den urtekoak, berriz, tenorez prestatzeko intentzioa dago, eta egunak paratuak daude: ilbeltzaren 30 eta 31.

### Argipenak

Ilbeltzeko kronikako argazkia (inaute batzuetakoa) ez zen berriemaileak paratzeko eskatua. Oraingoan heldu den Martin zenaren kronika hau, berriz, aurreko zenbakirako bidalia zegoen.

### Okina hil zaigu

Ilbeltzaren 1ean egin zuen hondarreko hatsa Martin Mitxeo *Saldisko panaderoak*, 83 urte zituela. Urrutietatik etortzen da jendea Olasoko ogia erostera, "betiko ogia edo ogi potxolua" esaten diotena. Horretaz ezagutzen zuen jende askok Martin, hizketa goxoko gizon leuna. Joan den hilean joan zaigu sekulako, eta sumatuko dugu haren faltea. Eultzia ere herrian egiten zen denboran ikasi zion amari opilak labean erretzen, eta seme Xabierreri erakutsi gero. Orain dela hogei urte, elkarrizketa bat egin zioten Ttipi-ttapan, eta honela esplikatu zuen nola hasi zen panadero: «Garai hartan, ama hasi zen eta nik lagundu egiten nion, eta geroago, nire gain hartu nuen. Guk egurrezko labeak ditugu, egurrezko labeak gusto diferentea ematen baitio ogiari irauteko ere, egurrezkoan eginak gehiago irauten du». Egun hauetan Mikel Laboaren kantu hau ibili dut gogoan haren hutsa ezin beteta:




ARTXIBOKO ARGAZKIA
Orain dela 20 urte, elkarrizketatxo bat egin zioten, eta lehenbiziko orrian joan zen honako erretratu hau.

*Gure hitzak*
*esan berriz esan*
*ez daitezela ahaztu*
*ez daitezela gal,*
*elur gainean*
*txori hanka arinek*
*utzitako arrasto sail*
*ederra bezalaxe*

# GOIZUETA

**GIZARTEA** ➜ GAZTE TXOKOAN

## Garai batean zagia nola dantzatzen zuten erakutsi du Joxe Mari Narbartek



UTZITAKO ARGAZKIA

Zagi dantza, duela 50 bat urteko inauterietan.

### Orain gazteek oso ezberdin dantzatzen omen dute

**TTIPI-TTAPA**

Aldizkari hau esku artean duzuenerako bukatuak izanen dira inauteri kontuak. Baina gaur egungo inauteriak ez ezik, garai batekoak ere nolakoak ziren ezagutzeko aukera izan dute herriko gaztetxoek.

Mozorroek dantzatzen duten zagi-dantza da herriko inauteriaren bereizgarrietako bat. Aspaldiko ohitura izanagatik, hau ere aldatu egin da urteen poderioz. Horixe erakutsi zuen otsailaren 22an Joxe Mari Narbartek, gazte denboran zagi izandakoak. Goizueta eta Aranoko Guraso Elkarteak antolatzen duen Gazte Txokora hurbildu zen Narbarte eta inauterietako diapositiba batzuk ikusi zituzten, lehengo eta oraingo argazkiekin. Joxe Mari Narbartek lehenago nola dantzatzen zuten kontatu eta erakutsi zuen. Berak esaten duenez oraingo gazteek oso desberdin dantzatzen omen dute eta. Gustora egon ziren gazteak zagi-dantzako kontu zaharrak entzuten Joxe Mariren ahotik, baita lehengo modura dantzatzen ere.




UTZITAKO ARGAZKIA

Ea zenbat akats aurkitzen dituzuen Biuretako presan Accionak paratutako kartel honetan.

# ARANO

**OSPAKIZUNAK** ➜ OTSAILAREN 22AN

## Karnabalak umore ederrean!



UTZITAKO ARGAZKIA

Zomorroek aspaldiko urteetako eguraldi goxoena izan zuten lagun.

### Emakumeen Egunerako erakusketa

**Maider ANSA**

Eguraldi eta giro bikainean pasa dira karnabalak gurean. Aspaldiko urteetako eguraldi gozoenarekin, lagun koadrila polita ibili zen etxez etxe eta ondorengo zai-dantza eta afarian. Aurten ere, zai-dantzako protagonista nagusien paperean bi emakume izan genituen, Maitane Legarreta eta Maitane Sarobe.

Gauean, berriz, afal ondoreko kantaldi goxoa izan genuen, Fermin Zinkunegiren laguntzaz.

### Emakumeen Eguna

Data hau gogoan hartuta, martxoaren 7tik 9ra erakusketa bat jarriko da ikusgai Kontsejun. Beatriz Albarrán argazkilariaren, *Erase una vez... que no era* erakusketa izango da, ipuin tradizionaletan emakumearen rolak kolokan jartzen dituena.

Bestalde, martxoaren 8an Arantxa Gurmendik zuzendutako *Emakumeak plazan* dokumentala proiektatuko da udaletxeko ganbaran.

### San Roke batzarra

Bazkide batzarra izango dute martxoaren 8an San Roke Elkartean. Ondoren, betiko moduan afaria egingo dute.

# LEITZA

**OSPAKIZUNAK ➜** MARTXOAREN 15EAN

## Txistulari eta Elkartasun Eguna ospatuko dira

Euskal Herriko Txistularien Elkarteko batzarra ere eginen da

**JM BARRIOLA**

Euskal Herriko Txistularien Elkarteko batzarra ospatuko da Leitzan martxoaren 15ean. Larunbat horretarako egitarau zabala prestatu dute eta txistu soinuaz gozatu ahalko da egun osoan: 9:30ean Txistularien elkarretaratzea institutuan eta bertan gosaria. 10:00etan meza. 10:45ean Agintarien ongietorria Udaletxean. 11:30ean Ez ohiko Batzar Orokorra Leitzako zinean eginen dute. 13:00etan Kalejira, poteoa eta kontzertu herrikoia. 14:30ean Anaitasun bazkaria.

### Elkartasun Eguna

Txistularien Egunaz gain, Elkartasun Eguna ere izanen da martxoaren 15ekoa. 14:00etan bertso bazkaria eginen da. 20:00etan manifestazioa eginen da eta 23:30etik aurrera, Atekabeltz gaztetxean kontzertuak eskainiko dituzte Zeropetik talde leitzarrak eta Buuzbu Iparraldeko taldeak.

### Emakumeen Eguneko egitaraua

Martxoaren 8an, emakume langileen eguna aldarrikatzen denez, herriko eragileek egitaraua prestatu dute, eta parte hartzeko deia luzatu diete herritarrei. Lehenik Iruñeko Gaztelu Plazatik 12:00etan abiatuko den manifestaldira joateko deia egin dute.

Arratsaldean Leitzan, pelikula bat jarriko da Atekabeltzen eta ondoren afari-merendua. Martxoaren 14an, ostiralarekin, 19.30ean Atekabeltzen, "Abortatzeko eskubidearen dosierraren aurkezpena" eginen du Abortoaren aldeko Plataformak, Ohiana Lopezen eskutik.



UTZITAKO ARGAZKIA

### Aralar Musika Eskolakoen emanaldiak izan dira

Otsailaren 17tik 21era Aralar Udal Musika Eskolako musika tresnen audizioak izan ziren herriz herri. Eskolako zuzendariaren esanetan audizioak formatu txikiko kontzertuak dira funtsean eta bete nahi diren helburuak hauexek dira: alde batetik tresna bakoitzeko errepertorio ugaria erakutsi nahi da eta bestetik zonalde ezberdinetako ikasleak beraien artean ezagutzea. Hori dela eta, egunero instrumentu ezberdinen kontzertuak eskaini ziren eskualdeko herri ezberdinetan. Asteazkenean Leitzan bi emanaldi izan ziren: arratsaldeko 4:30ean zonalde guztietako trikitilariak aritu ziren zinean eta 18:30ean gitarjoleak aritu ziren hariak astintzen.Egun horretan 135 ikaslek parte hartu zuten. Hurrengo egunean, Leitzan berriro ere talde instrumentaleko emanaldia izan zen. Egun horretan tresna ezberdinak batera aritu ziren eta eskualde osoko ikasleek parte hartu zuten bertan. Herriko zinera hurbildutako entzulegoak estilo ezberdinetako errepertorioarekin gozatu zuen. Guztira 300 ikasle inguruk parte hartu dute, zazpi urtetik hasita helduetaraino.



UTZITAKO ARGAZKIA

### Irrizaleen Oroigarria eskuratu du Udalak

Irrien Lagunak Klubak udal eta ikastetxe irrizale izendapen ekitaldia egin zuen otsailaren 20an. Denera 59 udal eta 94 ikastetxeri egin zaie aitortza hori, tartean Leitzako Udalari. Onintza Bengoetxea eta Arantxa Iparragirre zinegotziek jaso zuten diploma Joxe Mari Agirretxeren (Porrotx) eskutik.

**LEITZALDEA ETA URUMEALDEA ➜** «EZ ZAIGU IRUDITZEN INONDIK INORA HORI DIRULAGUNTZA UKATZEA DENIK» DIO IDATZIAK

## Etxetik Plazara aldizkaria dirulaguntzatik kanpo uzteko arrazoia zein izan den azaldu du Iparraldeko Euskara Mankomunitateak

**TTIPI-TTAPA**

Ttipi Ttapak 607. alean ateratako artikuluari erantzunez, Iparraldeko Euskara Mankomunitateak azaldu nahi izan du *Etxetik Plazara* aldizkaria dirulaguntzatik kanpo uzteko arrazoia zein izan den. «Azkeneko hiru urteotan arazo asko izan ditugu Mankomunitatearen beraren bizirauupena bermatzeko. Hori dela eta aurten ere larri ibili gara aurrekontuak egiteko garaian eta *Etxetik Plazara*ri ematen zitzaion diru partida kendu behar izan dugu gure nahiaren kontra, jakinik ekarpen polita egiten duela euskara ikasi eta hobetu nahi dutenen artean», dio Mankomunitatearen idatziak.

Garbi utzi nahi izan dute, bestalde, «guri ez zaigula iruditzen inondik inora hori dirulaguntza *ukatzea* denik».

«Aurrerantzean, eta zoritxarrez, gure eskualdeko herritarrek ez dute aldizkaria etxean jasoko, baina herritarrek euskara ikastea eta hobetzea gure lehentasuna izaten jarraitzen duenez bide horri eusten» jarraitu beharko dutela adierazi nahi du Iparraldeko Euskara Mankomunitateak.

GIZARTEA ➜ PEDIATRA EUSKALDUNA ESKATUKO DUTE

# Euskararen aldeko ekimenak abian

Herritarrek euskara nola bizi duten ere jaso nahi dute

Juana Mari SAIZAR

Euskara teknikariak egindako deiari erantzunez, herriko euskara taldeak bilera egin zuen pasa den astean. Bertan aurreko bileran hitz egindakoak errepasatu eta lan berriak jarri zituzten martxan. Gure eskualdean jakina da osasun arloan euskararen gabezia nabarmena daukagula, bertako pediatraren plazak ez baitu perfil euskalduna eskatzen. Hori aldatzeko urratsak eman nahi dira. Hala, euskaldunok osasun arloko arreta euskaraz jasotzeko dugun eskubidea aldarrikatuz, Nafarroako Gobernuari kexa azaldu nahi zaio. Inguruko beste herriekin batera egingo da eskaria, etorkizunean pediatra euskalduna izan dadin.

Bestalde, kontzientziazio eta sentsibilizazio kanpaina bat egiteko garai egokia dela uste da. Gure herrian euskara hizkuntza nagusia izan arren, inoiz ez datoz gaizki halako ekimenak, batez ere erlaxatu ez gaitezen. Horretarako adin eta sexu ezberdinetako aresoarrengana jo eta elkarrizketak egingo zaizkie euskararen inguruan duten iritzia, dituzten sentipenak... grabatzeko. Herritarrek euskara nola bizi duten jasotzea da helburua. Honekin batera, hizkuntza eskubideen tailerra egitea ere erabaki zuten. Herrian oraindik zer egina eta hobetua badagoela agerikoa denez, jarrai dezagun lanean bakoitzak gure aldetik pixka bat jarrita!



ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR

### «Haurren ikasketa teknikak nola hobetu» ikasiz

Haurren ikasketa teknikei buruzko bi saio egin dira berriki herrian. Aresoko Guraso Elkarteak antolatu ditu, gizarte zerbitzuaren laguntzarekin. Ordu eta erdiko iraupena izan du hitzaldi bakoitzak eta haurrei ikasten laguntzeko teknika desberdinak ikasi dituzte bertaratutakoek.

### Emakumeen eguna

Aurten ere Emakume Langilearen Eguna ospatuko da herrian. Orain arte martxoaren 8an bertan ospatu izan bada ere, aurten bezperan egingo dira ekintzak, martxoaren 7an, ostiralean alegia.

Kartelak jada jarrita daude herrian baina norbait konturatu ez bada, hemen duzue egitaraua: Arratsaldeko 7:30ean *80 egunean* pelikula ikusteko aukera izango da udaletxeko goiko solairuan. Ondoren pelikula komentatuz afari autogestionatua izango da. Bakoitzak etxetik zeozer ekarri eta ea giro goxoan iluntze eder bat pasatzen dugun elkarrekin.



# GIZARTEA

**MERKATARITZA** ➜ MARTXOAREN 15 ETA 16AN

## Bidasoaldeko salgai-hondarren feria eginen dute lehen aldiz Lesakan

Lesaka, Bera eta Doneztebeko merkatari eta zerbitzuen elkarteek antolatua

**TTIPI-TTAPA**

Bidasoaldeko salgai-hondarren lehen feria antolatu dute Lesakako Harriondoa Kultur Etxean martxoaren 15 eta 16an. Lesakako Zerbitzuen Elkarteak, Berako Larun Haizpek eta Doneztebarrak elkarteek antolatu dute feria, Cederna-Garalur, Lesakako Udala eta Nafarroako Gobernuaren laguntzaz. Larunbatean 16:00etatik 21:00etara eta igandean 10:00etatik 21:00etara irekiko dira Kultur Etxeko ateak.

Guztira, 22 komertzio eta zerbitzuk parte hartuko dute eta kirol arropa, haur zein helduentzako moda, oinetakoak, etxetresnak, lentzeria eta mertzeria, estetika, produktu ekologikoak, lore eta landareentzako produktuak eta bertze hainbat material ere aurkitu ahal izanen da. Hiru elkarteek adierazi dutenez, stockean dituzten markako produktuak salneurri egokian eskuratzeko aukera aproposa izanen da, egokitu berri den gune batean eta etxetik hurbil. Familia zein lagun taldeek asteburu pasa goxoa egin ahal izateko gainera, haurrentzako txokoa prestatu dute, hartara, etxeko ttikienek ere jolastuz edota margotuz pasatu ahal izanen dute denbora, guraso eta familiartekoek erosketak egiten dituzten bitartean.



ARGAZKIA: PELLO SAN MILLAN

Bilbon aurkeztu zuten kanpaina berria otsailaren 26an.

**MERKATARITZA** ➜ KANPAINA BATERATUA ETA GURUTZATUA EGINEN DUTE

## Bilbo eta Baztango merkatari elkarteek bat egin dute

**TTIPI-TTAPA**

Bilboko Alde Zaharreko Zazpikaletako eta Baztango Bertan merkatari elkarteek euren bezeroen fideltasuna sarituko dute bi lagunentzako hamarna asteburu zozketatuz.

Kanpainaren aurkezpenean, Nafarroako Gobernuko eta Eusko Jaurlaritzako Turismo zuzendariak, Baztan eta Bilboko udal ordezkariak eta kanpaina honen antolatzailea eta sustatzaile diren merkatari elkarteen ordezkariak izan ziren Bilbon otsailaren 26an. Baztango landa merkataritza eta Bilboko hiri merkataritza eskutik helduta aurrekaririk ez duen kanpaina honen bidez esker ona erakutsi nahi diete etxetik hurbil dauden saltokietan erosi eta kontsumitzen dutenei.

Astero (martxoaren 11, 18 eta 25ean eta apirilaren 1ean eta 8an) bi boleto aterako dira elkarte bakoitzean aste guztian jasotako boletoen artetik. Elkarte bakoitzak saritutako hamar boleto aterako ditu, hau da, guztira 20 sari banatuko dira kanpaina honetan, 10 Bilbon eta 10 Baztanen.

Sarituen izenak bi elkarteen web orrietan argitaratuko dira. Zazpikaletako Merkatari Elkarteak bi lagunentzako 10 turismo sortek Baztango landa etxe batean ostatua, afaria eta bisitaldiak dituzte barne. Baztango 10 sarituek, berriz, bi lagunentzako Bilboko hotelean ostatu, afaria eta bisitaldiak jasoko dituzte.





**GIZARTEA** ➜ IDEA ENPRESAREN ADJUDIKAZIO-ALDIA AKITZERA DOA

# Zahar Etxeko adjudikazio eta kudeaketa modua aldatuko du Udalak

Ez du interesko gestio formako adjudikaziorik onartuko eta ez du negoziazio itxi bidez emandako adjudikaziorik automatikoki berrituko

**TTIPI-TTAPA**

Elizondoko Francisco Joaquin Iriarte Zahar Etxea kudeatzeko IDEA enpresak duen adjudikazio-aldia akitzera doa eta oraingoan, Baztango Udalak ez duela interesko-gestio formako adjudikaziorik onartuko eta ez duela negoziazio-itxi bidez emandako adjudikaziorik automatikoki berrituko jakinarazi du.

Baztango Udalak jakinarazi duenez, IDEAk orain artio zahar etxea intereseko-gestio adjudikazio-eran egin du. Udalaren ustez, «adjudikazio-modu hau, normalki zerbait produzitzen duten enpresetarako erabiltzen da, baina ez zahar-etxea bezalako zerbitzu-enpresa baten adjudikazioa egiteko». Intereseko-gestio forma hau ez da ona udalarendako: «aldiro Udala enpresaren galeren edota irabazien parte egiten du, kasu honetan galeren % 20 bere gain harraraziz, eta enpresak dituen diru sarreren % 3 ere ordaindu behar du. Azkenengo 4 urteotan 90.000 euro inguru urtero».

Bertzalde, IDEAri gestioa eman zitzaiolarik lehiaketa publiko egin beharrean negoziazio-itxi bidez eman zitzaion, hau da negoziazio horretarat enpresa batzuk gonbidatuz eta horien artean hautatuz. Udalak duen informazioaren arabera prozedura ez zen modu egokian egin, hau da, «ez zen lehiaketa publikoetan eraman behar den gardentasuna eraman».

Beraz, Baztango Udalak garbi utzi du adjudikatzeko eta kudeatzeko moduak aldatuko dituela. Kudeaketari dagokienez, Udalaren irizpideak hauek dira: «kalitatezko zerbitzupublikoa ematea erabiltzaileei beharrezko guztiak bermatuz, diru publikoen erabilera gardena egitea, langileen baldintzak kontuan hartzea eta, oro har, herritarren interesak defendatzea. Udalak irizpide horiek guztiak kontuan hartuko ditu horietako bati berari ere uko egin gabe», argitaratu duen idatziaren arabera.



ARGAZKIA: PELLO SAN MILLAN

**Gizakunde Eguna Erratzun eta Arizkunen**

Otsailaren 15ean Gizakunde Eguna ospatu zuten Arizkun eta Erratzun. Arizkungo Gamioxarrean mozorroak prestatu, plazan Sagardantzak dantzatu eta Erratzurako bidea hartu zuten, etxez etxeko eskea egiteko eta dantzatzeko Jantzilo epaitu eta erre zuten. Etxelebertzeko txokoan afaldu zuten.

?

***Ba al zenekien***

**Irrien Lagunak Klubaren eskutik aitortza jaso duten Euskal Herriko 59 udal eta 94 ikastetxeen artean daudela Baztango Udala eta Baztango Herrietako eskolak**



# BAZTAN

**OSPAKIZUNAK** ➜ ELKARRETARATZEA, BAZKARIA ETA PROIEKZIOAK ORTZIRALEAN ETA LARUNBATEAN

## Emakumearen Eguna ospatuko du Eguzkilore elkarteak

Hitzaldiak, sormen tailerrak eta gazta egiteko tailerrak ere antolatu dituzte datozen asteetarako

**TTIPI-TTAPA**

Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna ospatzeko Eguzkilore elkarteak hainbat ekintza antolatu ditu Elizondon. Honela, martxoaren 7an, ortziral arratsaldeko 6:30ean “Cuidado Resbala” dokumentala proiektatuko dute Arizkunenean. Martxoaren 8an, larunbatarekin, elkarte ezberdinek deitutako elkarretaratzea eginen da Elizondoko plazan eta 14:00etan bazkaria Galartza jatetxean. 18:00etan Arizkunenean bertze proiekzio bat eskainiko da.

Baina Eguzkilorek prestatutako kultur eskaintza ez da Emakumearen Egunera mugatuko. Ikasturte osoan eskaintzen duten iraupen luzeko ikastaroez gain bertze proposamen batzuk ere prestatu ditu. Honela, homeopatiari buruzko hitzaldia eskainiko du Juan Ballesterosek martxoaren 24an, 19:00etan Arizkunenean. Kolorearen bidez sormen tailerra ere eginen dute bortz larunbatez (martxoaren 15, 22, 29 eta apirilaren 5 eta 12an) Arizkunenean, Almudena Placeren eskutik. 40 euro ordaindu beharko da matrikula eta guttienez sei pertsona eta gehienez hamar onartuko dituzte. Izen emateko 948 502389 edo 646 125673 telefonoetara deitu behar da (Almudena). Gazta egiteko tailerra ere eskainiko dute apirilaren 2an, 17:00etan. Izen ematéko 948 452372 telefonora deitu behar da (Mertxe) eta 8 euro ordaindu beharko da.



ARGAZKIAK: JUAN MARI ONDIKOL

### Artzain Amerikanoen topaketa Arraioz eta Dantxarinean

Uda honetan Estatu Batuetan barna ibili diren artzain amerikanoek eta bere senideek bertze topaketa bat egin zuten otsailaren 15ean Arraiozen eta Dantxarinean. Arraiozko Nafar Mendin hasi zuten besta hamaiketakoa eta *high ball* hartuz. Bertzeak bertze, Julian Iantzi telebistako aurkezlea (artzainaren semea) eta Mikel Goñi izan ziren. Arraioztik Dantxarineako Benta Peio-Landibarrera joan ziren bazkaltzera. Euskal Artzainak Ameriketan elkarteak, bidaiako argazki liburua eta ETBk emititutako DVDa opari eman zien artzainei.

## FLASH

### ‘Krisia eta alternatibak ekonomia feministatik’ solasaldia

Baztango Sortuk antolatuta, Yolanda Jubeto EHUko ekonomia irakasleak solasaldia eskainiko du martxoaren 7an, ortziral arratseko 8:30ean Arizkunenean, *Krisia eta alternatibak ekonomia feministatik (produkzio sistema eta herritarren ongizatea)* izenburupean.

### Emakumearen Eguna

Plazara Dantzara elkarteak ere zenbait ekitaldi antolatu ditu. Martxoaren 8an bazkaria Gaztetxean eta gauez DJ Tirri-Teri leku berean. Udalak, *Susanaren iraultza* clown-ikuskizuna antolatu du martxoaren 9an, 19:00etan.

### Diabetes eta kirola solasaldia

ANADI Nafarroako Diabetikoen Elkartearen eskutik, *Diabetes eta kirola* solasaldia eginen da Arizkunenean martxoaren 20an, 19:00etan.

### Idazleekin solasean

Idazleekin solasean ekimenaren baitan, Garbiñe Ubedaren *Hobe isilik* izanen dute solasgai martxoaren 10ean, astelehen arratsaldeko 7etan Amaiurko elkartean.

### ‘Hiru’ antzezlana Iruritan

Txalo produkzioak taldearen *Hiru* antzezlana ikusgai izanen da martxoaren 16an, 19:00etan Iruritako Gizarte Bilgunean.









# BAZTAN

**GIZARTEA** ➜ BI FASETAN GAUZATUKO DA PROIEKTUA

# Baztan Abentura Park irekiko dute Aste Santuan Beartzunen

## Navartur ferian aurkeztu dute proiektua

**TTIPI-TTAPA**

Beartzun auzoan, Elizondoko herrigunetik hiru kilometrora zabalduko dute Baztan Abentura Park Aste Santu honetan. Parke berri hau BKZ Nafarroa Abenturak sustatu du. Duela bi urte hasi zen Abentura Parke berri hau egiteko asmoarekin, ingurua kirol ekintzak burutzeko arras aproposa da, eta BKZ-k 6 urte baino gehiago daramatza Beartzunen arroil jautsiera egiten.

Lehenego fase batean zonaldearen inguruko informazioa jaso zen. Lursail guziak herri partzelak dira, ingurugiroaren aldetik ere egin daiteke, ez baitaude babes bereziko eremurik. Bertzalde BKZ-ko arduraduna, gisa hontako egitasmoak egiten diren herrialdetara joan zen eta sektoreko enpresik garrantzitsuenekin harremanetan jarri zen.

Informazio guztiarekin, lehenengo txostena egin zen Baztango Udaleko alderdi politiko guziei, Elizondoko herriari, Beartzungo auzotarrei, Bertizko Partzuergoari, Cederna Garalurri eta zonaldeko eragile turistiko guziei aurkezteko. Helburua Baztango erakunde guzien babesa lortzea zen, egitasmoa bateratzailea eta ingurugiroarekiko iraunkorra delako eta zonaldean eragin ekonomikoa eta lanpostuak sortuko dituelako. Aipatu beharra dago ekimenak guzien babesa izan zuela, Abentura parke berriak, zonaldeko garapen sozioekonomikoan eragin handia izango duela baloratu zen. Babes hau lortu eta gero, behin betiko proiektua idatzi zen eta parkea eraikitzeko baimen guziak lortu ziren. Proiektuak Moderna Zigilua du eta Europako dirulaguntzak lortu ditu Cederna Garaluren bidez (Leader proiektua).

> **DATUA**
>
> **6**
>
> **KILOMETROKO** tirolina zirkuitua osatuko da bigarren fasea akitzen denean.

### BI FASETAN GAUZATUKO DEN PROIEKTUA

Proiektua bi fasetan egingo da. Lehenengo fasean 5 tirolina erraldoi, 4 tirolina ttiki (3 urtetik goitikoentzat), arroil-akuapark naturala Zankako presan, 200 metroko bide ferrata handia, pendulo ttikia, Mega penduloa, ibilbide panoramikoa eta bertze azpiegiturak irekiko dira Aste Santuan.

Bigarren fasean 1.300 metroko hiru mega super-tirolina egin nahi dira, 140 metroko alturan, eta 300 metroko bertze batekin batera, 6 kilometroko tirolina ibilbidea egitea lortuko da, (munduko zirkuitorik handienetariko bat izanen da), begiratoki eta ibilbide berriekin batera. Tirolina erraldoiak eta pendulo handia ahalmen urritasunak dituzten pertsonendako ere egokituak egongo direla.

Eraikitze proiektuaren koordinazio eta zuzendaritza Beriaingo Prolesogal enpresaren esku dago, eraikuntza lanak Mariezkurrena eraikuntzak eta Oskariz anaiak egiten ari dira; gai teknikoetaz Mexiko-ko "Tirolesas Mexico" enpresa arduratzen ari da, eta material teknikoei dagokionez, Josune Bereziartu eskalatzailea ezagunaren aholkularitza daukate. Denak eskarmentu handiko profesionalak dira.

---

**MARTXOAK 14-15**

## Berroetako Asteburu Kulturala ekitaldiz gainezka dator

**TTIPI-TTAPA**

Asteburu kulturala antolatu du martxoaren 14 eta 15ean Berroetako herriak. Ortziralean 18:00etan Marrazki tailerra haurrendako eta txokolatada eginen dira Hegoalde elkartean. 19:30ean *Baztan* filmaren emanaldia. 21:00etan afaria eta mahai jokoak. Larunbateko ekitaldiak, Gure Ametsa elkartean eginen dira. 11:00etan birziklapen eta konposta ikastaroa, Karlos Garaikoetxearekin. 17:00etan Batukada ikastaroa (frontoian). 18:30ean Mikologiari buruzko ikastaroa Joxe Manuel Lekuonaren eskutik. 19:45ean Haurren Marrazki erakusketa. 20:etan Argazki erakusketa eta sari banaketa. 21:30ean Afaria. Ondotik Txiste kontaketak eta Euskal Kantu Zaharrak Santxotena eta Jaliskorekin.

---



ARGAZKIA: MARIA PLAZA

**Zuhaitzaren Eguna ospatu du aurten ere Baztan Ikastolak**

Baztan Ikastolak Zuhaitzaren Eguna ospatu du aurten ere. Guraso, ikasle eta irakasle koadrila ederra bildu zen otsailaren 16an Bagordiko kaxkoan eta berrehun pago landatu zituzten. Astebete lehenago, gurasoek auzolanean ingurua garbitu eta hesitu zuten auzolanean eta zuloak prestatu zituzten. Ikasleak gustura ibili ziren landaketan, aitzineko urteetan sartutako zuhaitzak ikusi bidenabarkoan.

# ZUGARRAMURDI-URDAZUBI

**GIZARTEA ➜** 15. URTEURRENA

## Atxuria mendi taldearen 500 argazki ikusgai izan dira



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO
Berrogeita zortzi lagun bildu zituen otsailaren 23an Atxuriak antolatutako mendi ibilaldiak.

### Urteurreneko ibilaldian 48 lagun bildu ziren

**Margari eta Koro**

1998. urteko apirilean egin zuen Atxuria mendi taldeak lehen ateraldia. Zugarramurditik Elizondorainoko bortz oreneko ibilaldia izan zen. Lehen ateraldiek ez zuten maiztasun berezirik, baina arrakasta ikusita, segidan hilabeteroko ibilaldiak antolatu ziren (uztaila eta abuztuan izan ezik).

Zugarramurditik hasi eta inguruko toki guztietara ailegatu dira: Elizondo, Lekarotz, Erratzu, Bera, Lesaka, Etxalar, Azkain, Ezpeleta, Senpereko lakua eta Lezetako-Borda (tartean diren mendiak iganez).

Bertze tokietatik abiatuz: Baigorri, Ziga, Orio, Donosti, Harri-kulunka, Aizkolegi, Saioa, Auza, Mendaur, Ezkaba, Artzamendi, Arranomendi, Orhi, Hiru Erregeen mahaia... Santiago bidea ere egina dute, Baionatik Gares-era; eta baita ere Behobiatik Sunbilarainoko trenbidea. 15 urtez 3.000 kilometro korrituak dituztela eta, gan den urtean hasi ziren ospakizunekin, kamiseta berezi batzuk eginez. Baina besta nagusia otsailaren 23an egin zuten: egun hortarako antolatu zen ibilaldira 48 lagun animatu baitziren. Bazkarira 60 bat lagun hurbildu ziren.

Horretaz gain, aste osoan argazki erakusketa egon da museoko erakustokian. Hamabortz urte hauetan ateratako 500 bat argazki egon dira ikusgai.



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO

### Postontzi berria Bordakoetxeko paretan

Lehen zegoen tokian ura sartzen zitzaiola eta, duela lau hilabete Correosek erretiratu zuen buzona. Denbora honetan Urdazubi, Bera, edo Elizondora eraman behar izan ditugu kartak. Hondarrean buzonari teilatutxo bat eman eta toki egoki bat bilatu dio udalak: Bordakoetxeko paretan dagoen telefono kabina ondoan.

**HISTORIA**

## Urdazubiko Garatetarrak Ameriketan aberastuak

**Iñigo IMAZ (Historialaria)**

Urdazubin sortu eta Ameriketan merkataritza eta bestelako enpresetan aritu eta aberastu zirenen adibide dira Garatetarrak. Haietako bat, Juan Bautista Garate Zelaieta izan zen. Urdazubin sorturiko merkatari aberatsa, Limako sendi ospetsu bateko alaba, Toribia Maria Milicua-rekin ezkondua. Juan Bautista Urdazubitarra 1772ko urtarrilaren 21ean ikusten dugu Sevillako Kontratazio Etxean Ameriketara bidaiatzeko lizentzia eskuratzen. Agiri horretan, Juan Bautista Garate Liman bertako konpainia bateko *`dragoien'* teniente dela esaten zaigu. Garai haietan, Peruko Erregeordetza babesteko eliteko indar militarra osatzen zuten *dragoiek*. Juan Bautistarekin batera Urdazubiko Juan Pedro Zelaieta zihoan. Zelaieta Urdazubiko Juan Martin Zelaieta eta Maria Indaren semea zen eta Garateren morroi.

1784 eta 1817 urte bitartean, Juan Bautista Peruko 8 merkatari nagusien artean agertzen da. Espainiako Inperioaren mailegu-emaile ziren merkatariok. Garai haietan Amerikako kolonien eta Europako metropoliaren arteko harreman komertzialak zenbait portuetara mugatzen ziren, eta Peruko Callao portua eta Cadizekoaren arteko harreman komertzialak kontrolatzen zituzten merkatarien artean zegoen Garate. Merkatariok Ozeano Pazifikoko merkaraitza ere kontrolatzen zuten Txile eta Guayaquileko portuetatik. Normalean Callao, Cadiz, Buenos Aires, Trujillo, eta Quitoko portuetan senide eta lagunak izaten zituzten bazkide eta agente gisa. Horrela, adibidez, 1785eko apirilaren 16an Miguel Garate urdazubitarrak *El Pilar* ontzian Limarako bidaia egiteko lizentzia eskuratu zuen. Miguel Garate eta Maria Josefa Estebekonearen semea zen, eta ofizioz kargadorea. Hau da, ontziratu behar ziren merkantzien arduraduna izateko bidaiatzen zuen Ameriketara.

Juan Bautista Garateren garrantzia ulertzeko, aipatu behar dugu Limako Kontsuletxeko Auzitegiko Kontsula izan zela 1793an eta erakunde bereko Priore 1807an. Peruko elite komertziala osatzen zuten 25 familiek kontinente arteko merkataritzaren %45-a kontrolatzen zuten.

Juan Bautistaren seme Pascual Antoniok Limako San Markoseko Unibertsitatean ikasi zuen, Zuzenbidean doktoratu zelarik. 1805an, abokatu lanetan zebilen eta 1813an Unibertsitateko Klaustroko kide zela dakigu. Peruko Independentzia-deklarazioa sinatu zuen 1821ean. Limako alkatea izan zen 1826-1828, 1833-1835 eta 1839-1840 urte bitartean. Limako Subprefekta (1829), Errepublikako Kongresuan diputatua (1828-1832), San Markos Unibertsitateko errektorea (1836-1839). Liman zendu zen 1840an.

OSPAKIZUNAK ➜ HERRI URRATS

# Euskaltzaleen topalekua bilakatuko da aintzira maiatzaren 11n





ARGAZKIAK: FRANCK DOLOSOR
Seaskari lagundu bidenabarkoan, giro polita izanen da aurten ere Herri Urratsen.

**Aurtengo bestaren irabaziekin Seaskak Miarritzen eraiki nahi duen lizeoa lagunduko da**

**Franck DOLOSOR**

Herri Urrats Ipar Euskal Herriko ikastolen aldeko bestak hogoita hamekagarren edizioa ospatuko du heldu den maiatzaren bigarren igandean, aurten ere Senpereko aintziran. Zenbaki berezia da, orotarat, 31 ikastola direlako gaurko egunean Lapurdi, Nafarroa Behera eta Zuberoan. Aurtengo bestaren irabaziekin Seaskak Miarritzen eraiki nahi duen lizeoa lagunduko da. Miarritzen autobidearen ordainlekuaren ondoan eraikiko da ikastegi berria, denbora berean lizeo orokorra eta profesionala izanen dena. 350 ikasle hartuko dituen ikastetxe berriak 12 milioi euroko gastua ekarriko du eta Akitaniako lurralde kontseiluak erdia hartuko du bere gain. Miarritzeko hiriak lurra eskaini dio Seaskari. Orain 6 milioi euro inguru bildu beharko dituzte eskola berria altxatzeko. Lehen hitzordua Senperen finkatu da maiatzaren 11an, Herri Urratsen.

## Euskara aitzinera

Poliki baina segurki gure mintzaira aintzina ari da herriko gazteenen artean. Maitetxoak herriko haurtzaindegia Iparraldeko lehena izan da elebidun labela eskuratzen berriki. Gune hortan 60 haur aterpetzen ahal dituzte, hauetatik 12 osoki euskaraz Laminak deitzen den sailean, goizeko 8:30etik 17:30 arte. Azken bi urteetan urrats sendoak eman dituzte langileak euskalduntzeko, eta agiriak eta seinaletika bi mintzairetan ezartzeko. Otsailaren 21ean, labela eman dio gure herriko haurtzaindegiari Euskararen Erakunde Publikoko presidenteak Frantxoa Maitiak.

Urrats bat aitzinera dudarik gabe, ahatik, denen gogoan da toki frango eskas dela oraino haurrak hartzeko haurtzaindegian.






# SARA

**KULTURA** ➜ MARTXOAREN 8AN

## Kultur Eguna antolatu du Har Hitza hauteskunde zerrendak



UTZITAKO ARGAZKIA

EH BAI mugimenduarekin bat eginez, Har hitza taldeak aurkeztu du bozetarako bere zerrenda. Mixel Guerendiain buru duen taldeak «abertzale, ezkertiar eta ekologistak» direla jakinarazi dute, eta «gure herriaren kudeaketa, gure proiektuak, Euskal Herri berri baten eraikitzearen baitan kokatzen ditugu».

Joseba Tapia trikitilariaren kontzertu batekin borobilduko da larunbat osorako egitarau zabala

**Joana GERENDIAIN**

Har Hitza, EHBAI-ko zerrendak kultur eguna antolatuko du martxoaren 8an. Larunbat goizean 9:30etik 12:30era merkatu bat izanen da plazan, tokiko ekoizleekin. 10:30etik goiti, herritarren arteko kirol desafio bat izanen da, ber - tsolariak eta txalaparta entzuten ahalko dira eta Sarako dantzariek ikusgarri ttiki bat emanen dute. Haurrak ez dira ahantziak izan, haien - tzat haur xokoa eta zaldi ibilaldiak izanen baitira. Arratsaldean, ekital - diak Lur Berri gelan iraganen dira, 6etatik goiti. Ekitaldiak *Euskalduna naiz eta arraro nago* antzerkiarekin hasiko dira, ondotik Euskararen inguruko eztabaida bat eramanen da. Segitzeko txalaparta eta sua nahasten dituen ikuskizun bat emanen da eta bertsolariak entzuten ahalko dira berriz. Bukatzeko Joseba Tapia trikitilariak kontzertu bat emanen du. Egun osoan jateko eta edateko aukera izanen da.

**HAUTESKUNDEAK**

Martxoaren 23an herrietako bozak izanen dira. Momentuko bi zerrenda badira Saran, bat gaur egun auzapezak, Battit Labordek eramanik, *Sara zain* eta bertzea Mixel Guerendiainek eramanik, *Har hi - tza*.

### Saint Patrick gaua

Martxoaren 15 ean, larunbat gauarekin, Herriko Etxeko edantegia Irlandako tenorean emanen da, Saint Patrick gaua ospatuko baita. Gaualdia gaueko 9etan hasiko da oren bateko *Happy hour* (baso bat hartua bat eskainia) batekin. Ondotik MacOnak talde bizkaitarrak giroa emanen du ostatuan. Irlandako Guinness garagardo famatua edaten ahalko da. Animatu eta zatozte berdez mozorroturik!




UTZITAKO ARGAZKIA

### Eyharrabidetarrak Euskal Herriko mus txapelketan

Euskal Herriko mus txapelketaren karietara, Lapurdiko herrialdeko finala jokatu zen otsailaren 15ean Urruña-Pausuko Xaia ostatuan. Pipo eta Christelle Eyharrabide saratar bikotea Lapurdiko muslari txapeldunak izan dira eta beraz Heletan martxoaren 8an jokatuko den final nagusirako kalifikatu dira, bertze 15 parerekin. 128 pare arituko dira Euskal Herriko txapelduna bilakatzeko.

### Kirol emaitzak

Otsailaren 15-16ko asteburuan, eskubaloian 15 urte azpikoek galdu egin dute 18-14 Le-Ousse ko taldearen kontra. Seniorrek, aldiz, garaipena lortu dute kanpoan 20-12 Bosdarroseko taldearen kontra.

Errugbian, otsailaren 23ko asteburuan erreserbak jokatu gabe irabazi du 25-0 Narosseko ekiparen kontra eta lehenak irabazi du 7-6.










## EZKONTZAK

**Ez dago datu berririk.**

*Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.*




## SORTZEAK

**Julen Altzugarai Barinagarrementeria,** Leitzakoa, urtarrilaren 27an.
**Inhar Zelaia Sukunza,** Leitza-Belauntzakoa, urtarrilaren 29an.
**Ekai Maritxalar Aldaz**, Lesakakoa, otsailaren 19an.
**Pablo Agirre Telletxea**, Narbartekoa, urtarrilaren 25ean.
**Noa Bendoiro Telletxea**, Zubietakoa, otsailaren 20an.
**Urlei Sansinena Aragon**, Urdazubikoa, urtarrilaren 7an.

*Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.*




## HERIOTZAK

**Elisabeth Labrosse**, Sarakoa, otsailaren 13an, 80 urte.
**Maria Isabel Sagastibeltza Zestau**, Leitzakoa, otsailaren 24an, 90 urte.
**Micaela Sarratea Etxalar**, Iruritakoa, otsailaren 12an, 83 urte.
**Patxi Etxarte Larrañaga**, Etxalarkoa, otsailaren 14an, 65 urte.
**Javier Angel Iriarte Lorea**, Elizondon, otsailaren 14ean, 65 urte.
**Fermin Urrutia Ezkurra**, Elizondokoa, otsailaren 15ean, 89 urte.
**Felipe Biguria Garcia**, Elizondokoa, otsailaren 16an, 78 urte.
**Maria Tomasena Elizalde**, Etxalarkoa, otsailaren 17an, 94 urte.
**Juana Francisca Ibarra Elizalde**, Elizondokoa, otsailaren 20an, 69 urte.
**Mikel Arozena Etxeberria**, Almandozkoa, otsailaren 20an, 48 urte.
**Jose Antonio Errotaberea Etxepare**, Elizondokoa, otsailaren 26an, 70 urte.






**Cornelio**
**OCHANDORENA ALMANDOZ**

**I. URTEURRENA**

**Zubietan, 2013ko martxoaren 10ean**

*Ez agurrik, ez adiorik*
*gero arte baizik.*

**ZURE FAMILIA**
**I. Urteurreneko meza martxoaren 9an, goizeko 10etan izanen da Zubietako elizan.**

ttipi-ttapa | 609 zk.
2014.03.06

**MENDI LASTERKETAK** ➜ 85 LASTERKETETAN PARTE HARTU DUTE BERAKO TALDEKO KORRIKALARIEK

# 2013 urteko balantze ona egin du Manttale Mendi Lasterketa taldeak

## Manttale Ttiki eskolak sei urte bete ditu

**TTIPI-TTAPA**

Manttale mendi lasterketa taldeak 2013an parte hartutako lasterketen balantze ona egin du. Taldeko emakume eta gizonek 85 probetan parte hartu dute, mendiko eta errepideko lasterketak kontuan hartuta.

Mendi lasterketetan, Manttalen lehen urtea zuen Joseba Larraldek Nafarroako Kopa irabazi zuen, baita Unzuen egin zen Nafarroako txapelketa indibiduala ere; Hiru Mugak lasterketa. Gainera, Antsoaingo Ezkaba Trail-a irabazi zuen eta bigarren egin zuen Etxarri Aranazko Joan Etorrian, Isabako Camille Extrem-ean, Oleta-Yasola-Oletan eta Sarako Kontrabandisten krosean.

Manttaleko kideek Nafarroako Kopako bosgarren edizioan parte hartu zuten baita Isabako Camille Extreme proban egin zen Euskadiko kopan ere, azken honetan taldekako 3. postua lortuz.

Anjeltxo Aranibarrek ere postu onak lortu zituen, hala nola, Urdazubiko kontrabandisten krosean eta Biriatu-Ibardin-Biriatun bigarren postuak. Bertzalde, Txus Unsionek, beteranoen artean nabarmentzen segitu zuen Nafarroako Kopako bosgarren postua lortuz beteranoen sailkapenean eta laugarren postua lortuz Bidarraiko Mendi lasterketan.

Inguruko lasterketatan ez ezik, bertze hainbatean parte hartu du Manttalek. Munduko Koparako puntuagarria zen Zegama-Aizkorrin, lau taldekide izan ziren (Anjeltxo Aranibar, Iñaki Larrañaga, Joseba Petrirena eta Txus Unsion).

Emakumeek ere gero eta lasterketa gehiagotan parte hartu dute, Ezkaba Trailean Jone Zelaietak lortutako bigarren postua, Azkaingo Neska Korrikan Idoia Maritxalarrek lortutako garaipena eta Ezpeletako Mondarrainera igoeran Irene Almandozek lortutako garaipenak nabarmenduz.

Errepidean ere, Euskal Herri osoan distantzia ezberdineko 40 bat lasterketetan parte hartu du Manttalek.

### Manttale ttiki

Iñaki Pikabea, Hegoa Telletxea eta Jone Zelaieta arduradun diren Manttale ttiki atletismo eskolak seigarren urtea bete du, 50 haur ingururekin. Urritik ekainera larunbat goizero entrenamendu bat egiten dute. Haurrak hiru taldetan banatzen dira eta atletismoarekin lotuta dauden hainbat ariketa egiten dituzte kiroldegiko kanpoko zelaian, kiroldegian bertan edo Matzada futbol zelaian. Bi ordu irauten duten entrenamendu hauek hainbat irteerekin, lasterketekin edota mendi bizikletarekin konbinatzen dira eta kurtsoa Olitera egindako eskurtsio batekin itxi zuten. Hasieran Arantzazu eta Urbiara joatekoak ziren, baina eguraldi txarragatik aldatu zuten.




UTZITAKO ARGAZKIA

Manttaleko emakumeak, Azkaingo Neska Korrikan.

**MENDI LASTERKETAK** ➜ NAFARROAKO MENDI FEDERAZIOAK

# Joseba Larralde eta Txus Unsion saritu dituzte Euskal Mendi Galan

## Nafarroako Kopa burutu duten kirolari gazteena eta beteranoena izan dira

**TTIPI-TTAPA**

Iruñeko Planetarioan otsailaren 7an ospatu zen Euskal Mendi Galan, Manttale taldeko Joseba Larralde eta Josu Unsión beratarrak sarituak izan ziren.

Bere lehenengo parte hartzean, Joseba Larraldek Nafarroako Kopako irabazlearen saria jaso zuen, baita Luis Mari Pikabea saria ere, proba hau burutzen duen partaiderik gazteenari ematen zaiona. Unsionek, Nafarroako Kopa burutzen duen partaiderik beteranoari ematen zaion Xabier Zubieta saria irabazi zuen.

Nafarroako kopari, 2014tik aitzinera Nafarroako Lerroko Mendi Lasterketen Txapelketa deituko zaio.




UTZITAKO ARGAZKIA

Nafarroako Kopa burutzea lortu zuen kirolari gazteena izan zen Joseba Larralde.




ARGAZKIA: FOTO ZALDUA

Txapelketako finalistak, antolatzaileak eta sari banaketan parte hartu zutenak.

**PILOTA** ➜ ESKUZ BINAKAKO TXAPELKETAREN HAMABIGARREN EDIZIOA JOKATU DA

# Malerrekako txapelketako finalak jokatu zituzten otsailaren 22an

## Oberenako Diaz eta Iturriagak erraz irabazi zioten elite mailako finala Esain eta Tabar-i

**TTIPI-TTAPA**

Malerrekako eskuz binakako hamabigarren pilota txapelketako finalak jokatu ziren otsailaren 22an, goiz eta arratsaldez, Donezteebeko udal pilotalekuan. Beharbada, uste baino borroka guttiago izan zen final gehienetan, jubenil mailakoan izan ezik, gehienak garbi xamar erabaki baitziren.

**Benjaminetan**, Lazkaoko Iribarria eta Zubizarretak 18 eta 2 irabazi zieten Ilunpeko Arzallus eta Arrizabalaga,

**Alebinetan**, Ardoiko Etxague eta Igoak 18 eta 8 irabazi zieten Ilunpeko Egiguren eta Alberdiri.




ARGAZKIA: FOTO ZALDUA

Elite kategoriako irabazleak, Diaz eta Iturriaga, San Migueldarren artean.

**Infantilen** kategorian, Zazpiturriko Osa eta Zubeldiak 18 eta 7 irabazi zieten Añorgako Orbegozo eta Oliden-i.

**Kadeteen** kategorian, Lazkaoko Zubizarretak eta Ilunpeko Alberdik 18 eta 4 irabazi zieten Oberenako Garcia eta Cordón-i.

**Jubeniletan**, erran bezala, ikusi zen finalik orekatuena. Azkenean, Markinako Zubikarai eta Urizarrek 22 eta 20 irabazi zieten Tartaloetxeko Matxin eta Aranguren-i.

**Bigarren mailako seniorretan**, Oiarpeko Hernandez eta Imazek 22 eta 9 irabazi zieten Andoaingo Escudero I eta Elustondori.

**Elite** mailako kategoria nagusian, azkenik, Oberenako Diaz eta Iturriagak lau tantutan utzi zituzten Buruzgaingo Esain eta Huarteko Tabar, 22 eta 4.

Sari banaketan, Miguel San Miguel Doneztebeko alkatearekin batera, Julen San Miguel erremontelari profesionala eta Jon Jaunarena eta Mikel Olazabal esku pilotari profesionalak izan ziren.

---

**TXIRRINDULARITZA**

## Denboraldiko lehen garaipena lortu du Transbidasoa master taldeak

**TTIPI-TTAPA**

2014 denboraldiko hirugarren lasterketan Transbidasoa-Euromaster-Inurrieta taldeak urteko lehen garaipena lortu zuen otsailaren 22an Tafallan. Ion Zeberio elizondarra azkarrena izan zen helmugan lau lagunen arteko sprint estuan; Iñaki Villoria iruritarrak 90 kilometroko ihesaldia egin zuen eta Luziano Mitxelena lesakarrak master60 mailan garaipena lortu zuen.

160 txirrindulari izan ziren Tafallan eta Transbidasoa-Euromaster-Inurrieta taldeak dituen hamar txirrindulariak eraman zituen. Ia hasieratik Iñaki Villoriak bertze zazpi iheskiderekin alde egin zuen eta Artajonako bigarren igoeratik aitzinera bakarlanean aritu zen. Baina Villoria harrapatu eta sprint gogorra eta lehiatua Zeberiok irabazi zuen. Ibon Urtiaga hurrengo taldetxoan helmugaratu zen 9. postuan eta Luziano 29., Master60 mailako garaipena lortuz. Aurrez lan handia eginda gibelerago sartu ziren bertze taldekideak: Xabi Aranguren igantziarra (94.), Mikel Arburua igantziarra (95.), Riki (100.), Iñaki Villoria iruritarra (102.), Txutxin (118.), Joxean Mitxelena lesakarra (120.) eta Jabi Urtiaga (126.).

Asteburu honetan Zaragozan eta Bizkaiko Itzulian ibiliko dira taldeko txirrindulariak.

ttipi-ttapa | 609 zk.
2014.03.06

# martxoak 6 - 20

Informazioa bidaltzeko: **info@ttipi.net** edo **948 63 54 58**

## Ospakizunak



BERROETA | 2014.03.14-15

**Ekitaldiz betetako asteburu kulturala antolatu dute**

Haur eta helduentzako tailerrak, *Baztan* filma, marrazki erakusketa eta lehiaketa, txiste kontalaria eta euskal kanta zaharrak, otorduak... Denetarik izanen da.

## Solasaldiak



BERA | 2014.03.14

**Isidoro Fagoaga idazleari buruzko solasaldia**

German Ereña Eibarko ikertzaileak Isidoro Fagoaga tenor eta idazle zenari buruz hitzaldia eskainiko du martxoaren 14an, 18:30ean Beralandetan.

## Azokak



LESAKA | 2014.03.15-16

**Bera, Doneztebe eta Lesakako merkatarien azoka**

Aurten estreinako aldiz, salgai hondarren azoka elkarrekin egitea nahi dute Bera, Doneztebe eta Lesakako merkatariek. Lesakan egin dute hitzordua.

## Solasaldiak

ELIZONDO

**'Krisia eta alternatibak ekonomia feministatik'**

**Martxoaren 7an** Arizkunenean, 20:30ean.

**'Zaintzailea zaintzearen garrantzia' hizpide**

**Martxoaren 11n** Arizkunenean 17:30ean.

**'Familia harremanak diagnostikoaren aitzinean'**

**Martxoaren 18n** Arizkunenean 17:30ean.

**Diabetesa eta kirolaz**

**Martxoaren 20an** Arizkunenean 19:00etan .

**Abortatzeko eskubideaz**

**Martxoaren 21ean** Arizkunenean (18:00).

AMAIUR

**Garbiñe Ubedarekin**

**Martxoaren 10ean** *Hobe Isilik* liburuaz (19:00).

ALMANDOZ

**Gurasoentzat eskolan**

**Martxoaren 13an** *Beldurrak. Haur, gazte eta helduenak* 17:00etan.

BERA

**Pentsioen inguruan**

**Martxoaren 13an** Beralandetan 18:00etan.

**Isidoro Fagoagari buruz**

**Martxoaren 14an** 18:30ean Beralandetan.

BERROETA

**MIkologiari buruz**

**Martxoaren 15ean** Gure Ametsan 18:30ean.

LEITZA

**Abortatzeko eskubideaz**

**Martxoaren 14an** Atekabeltzen 19:30ean.

BERA

**Liztor beltzaz**

**Martxoaren 8an** liztor beltzaren inguruko solasaldia antolatu dute Bortzirietako udalek kultur etxean 10etan.

## Azokak

LESAKA

**Salgai hondarren azoka**

**Martxoaren 15 eta 16an** Lesaka, Bera eta Doneztebeko merkatarien azoka.

ITUREN

**Artisau feria plazan**

**Martxoaren 9an.**

BERA

**Bigarren eskuko azoka**

**Martxoaren 23an** kiroldegian, 09:00etatik 15:00etara. Labiaga Ikastolak antolatuta.

## Tailerrak

DONEZTEBE

**Menopausiari buruz**

**Martxoaren 10, 14, 20 eta 24an** 40-55 urteko emakumeentzat. Parte hartzeko hilaren 6rako 948 456001era deitu.

LESAKA

**Enpresa ttikientzat**

**Martxoaren 4, 11 eta 18an** *Nola saldu denbora nahasietan? sakana-amon@ cederna.es* eta 948 567010.

ARANTZA

**Autodefentsa ikastaroa**

**Martxoaren 22an** 10:00-13:00 eskolan.

## Bertsoak

ITUREN

**Bardoak saioa**

**Martxoaren 8an** Herriko Etxean 19:00etan.

ELIZONDO

**Bardoak saioa**

**Martxoaren 14an.**

## Antzerkiak

SARA

**'Euskalduna naiz eta arraro nago'**

**Martxoaren 8an** Lur Berri gelan 18:00etan.

ELIZONDO

**Emakumearen Egunaren harira**

**Martxoaren 9an** *Susanaren iraultza* 19:00etan Arizkunenean.

IRURITA

**'Hiru' antzerki ezaguna**

**Martxoaren 16an** Gizarte BIlgunean (19:00).

## Erakusketak

ARANO

**'Erase una vez... que no era' argazki erakusketa**

**Martxoaren 7tik 9ra** Kontsejun.

## Filmak

ELIZONDO

**Emakumearen Egunaren harira**

**Martxoaren 7an** *Cuidado resbala* 18:30ean Arizkunenean.

ARANO

**'Emakumeak plazan'**

**Martxoaren 8an** Herriko Etxeko Ganbaran.

## PROPOSAMENA

ESKUALDEA

**Emakumearen Eguna dela eta ekitaldiak**

Larunbat honetan, martxoak 8, Emakumearen Nazioarteko Eguna izanen da eta horren harira, hainbat ekitaldi antolatu dituzte eskualdean barna. Elkarretaratzeak, antzerkiak, filmak, kontzertuak, Bortzirietan Emakumeen V. Mendi Itzulia, ikastaroak, argazki erakusketak... Denetarik izanen da martxoaren 8aren bueltan.



ARESO
**Hainbat film aukeran**

**Martxoaren 7an** *Hiru mosketariak* (17:30) eta *80 egunean* (19:30). **Martxoaren 23an** *Nola Ttipi Ttapan?* (16:00) eta *Intocable* (18:00).

BERROETA
**'Baztan' filma ikusgai**

**Martxoaren 14an** Hegoalden 19:30ean.

ARANTZA
**Emakumearen Eguna**

**Martxoaren 7an** dokumentala 20:00etan Baskulan.

ETXALAR
**Emakumearen Eguna**

**Martxoaren 7an** *Pink Saries* filma 18:00etan Kultur Etxean.

BERA
**Emakumearen Eguna**

**Martxoaren 8an** *Pink Saries* Kultur Etxean 19:30ean. **Martxoaren 11n** filma Kultur Etxean (13:30).

IGANTZI
**Emakumearen Eguna**

**Martxoaren 8an** *Pink Saries* Biltokin (19:00).

LEITZA
**Emakumearen Eguna**

**Martxoaren 8an** filma Atekabeltzen.

DONEZTEBE
**Emakumearen Eguna**

**Martxoaren 8an** *Y ahora adonde vamos* Herriko Ostatuan, (18:00).

## Kontzertuak

SARA
**Joseba Tapiaren saioa**

**Martxoaren 8an** gauean Lur Berri gelan.

ELIZONDO
**Ongintzazko opera kontzertua**

**Martxoaren 22an** 20:00etan Elizan.

## ENTRETENIMENDURAKO GAIAK

### Liburua




Ura
J. B. PANAFIEU
Ttarttalo, 2014

Elurra egiten du basamortuan? Zenbat ur eraman dezake hodei batek? Zergatik ez dute arrainek burbuilarik egiten arnasa hartzen dutenean? Nola edaten dute enarek? Zergatik erraten dute lurra planeta urdina dela? Urik ba al dago bertze planeta batzuetan? Nola sortzen dira izozmendiak? Urak ez du sekretu gehiago izanen zuretzat. Ura eta uraren aberastasunak ezagutarazi eta zalantza horiek guztiak argitzera dator Jean-Baptiste de Panafieu idazlearen liburu hau, Aztiri itzulpen zerbitzuak itzulia eta Sophie Leboten marrazkiekin hornitua. Bortz urtetik goitiko neska-mutikoentzat da, 40 orrialde dituena. 15 zatitan banatua dago: *Planeta urdina, Bidaia luzea, Hodeiak, Izotzaren herrialdean, Gure oinen azpian, Ur kontuak munduan barrena, Bizitza!, Uretan, Lurraren eta uraren artean, Zure gorputzean, Hori indarra, hori!, Egunerokotasunean, Ura garbitzen, Ura arriskuan* eta *Izarretan.*

### Musika




Abuztuak 6
HIBAKUSHA
2014

Hibakusha 2013an Nafarroan sortutako euskal metal musika taldea da. Tears from Hiroshima eta Kerasy taldeak desegin eta gero, talde berria osatzea erabaki zuten, eta horrela sortu zen. Orain, berriz, Abuztuak 6 izeneko diska kaleratu dute, hamar abestiz osatutako lana. Bartzelonako La Atlantida estudios-en grabatu dute diska, Edgar Beltri eta Mario Patiño ekoizleen gidaritzapean. Taldearen arabera, «esnatzean indarberritzen zaituen diska» da, «zure nortasuna mantentzera bultzatzen zaituena, musikaren indarrak ustelduta dagoen gizarte batetik ateratzen zaitu gero berpizten laguntzeko». Boskote bat dago talde honen gibelean, eskarmentu haundikoak denak: Ander (bateria), Indusi (gitarra), Pedro (gitarra), Iñaki (baxua) eta Silvia (ahotsa). Euskaraz abesten dute.

### Internet




Nafarroan eraldaketa sozial eta politikoa bultzatzeko
AHOTSA.INFO

*Ahotsa.info* jaio da, proiektuaren sustatzaileek azaldu bezala, «Nafarroan eraldaketa sozial eta politikoa bultzatzeko» Interneteko atari berria. Espainiako Auzitegi Nazionalak Ateak Ireki webgunea ixteko agindu zuen joan den azaroan eta hark utzitako hutsunea betetzeko abiatu zuten *Ahotsa behar dugu* dinamika. Horren ondorioz sortu da orain *Ahotsa.info* egitasmoa, herritarren borondatezko diru ekarpenei esker. *Ahotsa behar dugu* kanpainarekin urtarrilean hasi ziren, eta 35.000 euroko aurrekontutik 20.000 euro *crowdfunding* bidez lortzeko erronka paratu zuten mahai gainean. Aurreikusia zuten guttieneko kopurua 12.000 eurokoa zen eta hori gainditu egin dute. Hala ere, oraindik ere badago diru ekarpena egiteko aukera. Gainerakoan, erran, martxan dagoen web orrian hainbat ataletan banatu dutela informazioa: politika, sozioekonomia, eskualdeka berriak, bideoak, kultura, iritzia eta agenda.

## Ospakizunak

ELIZONDO
**Emakumearen Eguna**

**Martxoaren 8an** egun osoko besta.

BERROETA
**Asteburu kulturala**

**Martxoaren 14 eta 15ean**.

SARA
**Kultur Eguna**

**Martxoaren 8an** merkatua, kirolak, bertsolariak, txalaparta, dantzariak, antzerkia eta Joseba Tapiaren kontzertua.

**Saint Patrick gaua**

**Martxoaren 15ean.**

LEITZA
**Txistulari Eguna**

**Martxoaren 15ean.**

**Elkartasun Eguna**

**Martxoaren 15ean.**

IGANTZI
**Kantu zaharren bazkaria**

**Martxoaren 16an** Herriko Etxean.

## Mendi irteerak

BAZTAN
**Mendigoizaleen irteerak**

**Martxoaren 9an** Oronoztik 08:00etan abiatuta Aizkolegira. **Martxoaren 16an** Itsusiko harrira, 08:00etan Artzamendiko lepotik.

BERROETA
**Asteburu kulturalean**

**Martxoaren 16an** Berroetatik Lantzera.

LESAKA
**Bortzirietako Emakumeen V. Itzulia**

**Martxoaren 9an** plazatik 09:00etan abiatuta.

## ETXEBIZITZAK
### salgai

**ORONOZ-MUGAIRI**. Etxebizitza salgai, mobleztatua dago. Berogailua, igogailua eta trastelekuarekin. 16 milioi Pta/ 100.000 €. ☎948 585036.

ANZABAL
INMOBILIARIA

**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**
- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

**IPARRALDE eta BIDASOA alderdietan**
- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurrak behar ditugu.

**URDAZUBI**
- Etxe berri bat salgai, mobleztatua. 2000 m²ko lursailarekin.

**DONEZTEBE**
- **Aukera:** 102 m²ko pisua salgai. Egoera oso onean dago. 3 logela, jangela, egongela, 2 komun, sukalde mobleztatua eta 17 m²ko trastelekua.

Tel. 948 580 804
Faxa. 948 581459
**anzabal@anzabal.com**

**ERATSUN**. Hiru borda salgai, lur eremuarekin. ☎943 217817.

**BERA**. Etxebizitza atxikia salgai. 200m². 3 solairu, kalitateko materialak, 4 logela, 2 bainugela, garajea (27 m²) eta lorategia (75m²). 3 autorentzako aparkalekua. Prezio negoziagarria. ☎636 880115 (19:00etatik aurrera).

**ARRAIOZ**. Baserria salgai edo errentan emateko. ☎609 973306.

**LEGASA**. 90m²ko pisua salgai, berritua eta egoera onean. 89.000 euro negoziagarriak. ☎650 730600 / 650 729639.

**ETXALAR**. Borda bere lur eremu eta baimenarekin salgai. ☎661 112154.

# MERKATU TTIKIA

## 948 63 54 58

**info@ttipi.net** edo **www.ttipi.net**

SAIL HONETAN **IRAGARKIA** JARTZEKO **8€** ORDAINDU BEHAR DA
**ARGAZKIAREKIN** JARRI NAHI IZANEZ GERO **10€**
IRAGARKI BAKOITZEKO **GEHIENEZ 25 HITZ** ONARTUKO DIRA

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **3008 0080 56 0703304329** kontuan

TTIPI-TTAPAk ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

## ETXEBIZITZAK
### erosi

**ARESO INGURUAN, BORTZIRIAK, MALERREKA edo BERTIZARANA ALDEAN** 4-5 gelako etxea erosi nahi da. ☎655 738846.

## ETXEBIZITZAK
### errentan emateko

**BERA**. Agerra auzoan pisua errentan emateko. Mobleztatua. Hiru logela, kalefakzioa eta igogailua. 420 euro. ☎659 963960.

**ORONOZ-MUGAIRI**. Pisua errentan emateko. 3. solairua, berria eta oso alaia. Egongela-sukalde ederra, logela bat, komuna, trastelekua, garajea, berogailu instalazioa eta igogailua. Igerilekua, padeleko zelaia eta frontoi komunitarioa. Errenta 380 euro. ☎661 898970.

**BERA**. Altzateko Plazan pisua errentan emateko. Igogailuarekin, hiru logela, egongela, sukalde zabala eta berogailua. Guztiz ekipatua. ☎665 716126/ 685 727560.

**BERTIZARANA**. Baserria errentan emateko. ☎678 957094.

**DONEZTEBE**. Pisua errentan emateko. Igogailu eta berogailuarekin. ☎678 633562.

**LESAKA**. Pertsona bakarrarentzako apartamentua errentan emateko. ☎678 855056.

**LEGASA**. Hiru logelako pisu mobleztatua errentan emateko edo salgai. Berritua. ☎677 089046.

**BERA**. Kanttonberri karrikan 3 logela dituen pisua errentan emateko. Mobleztatua. ☎649 069745 (deitu 17:00etatik aitzinera).

**BERA**. Itzea karrikan apartamentua errentan emateko. ☎609 973306.

**ARANTZA**. Pisua errentan emateko. 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea. ☎664 724553.

**ELIZONDO**. 3 logela eta 2 bainugela dituen mobleztatutako pisua errentan emateko. ☎948 452717 (deitu 19:30etik 22:00etara).

**ATARRABIA**. Bi logelako pisua errentan emateko. ☎650 191983.

**LESAKA**. Guztiz mobleztatua eta ekipatua dagoen duplexa errentan emateko. 1 edo 2 lagunentzat aproposa. Inguru polita eta lasaia. Berogailuarekin. ☎658 943702.

## ETXEBIZITZAK
### konpartitzeko

**BERA**. Neska batek pisukidea behar du. Arduratsua eta erretzailea ez dena. Pisua Bera kanpoaldean. ☎662 585965.

## GARAJEAK/LOKALAK
### salgai

**LESAKA**. Eltzetako plazan 58 m²ko lokala salgai, lehengo bodega edo upategia. 45.000 euro. ☎948 452083.

**DONEZTEBE**. Lokalak salgai. 3 lokal Zazpigurutze auzoan. 45 m² eta 42 m². Lokal bat Leitzarako bidean, 130 m². Premiazkoa saltzea. Prezio ona. ☎948 456010 (Fernando).

**LESAKA**. Eltzetako plazan lur azpiko garajea salgai. ☎646 774117.

## GARAJEAK/LOKALAK
### errentan emateko

**LESAKA**. Eltzeta karrikan garajea errentan emateko. 15 euro. ☎948 637538 (deitu eguerdian).

**LESAKA**. Jatetxe-erretegi zoragarria errentan emateko. Toki haundia. Ezkontza eta bertze ekitaldietarako erabat prestatua. Dena hornitua dago, sartzeko prest. Inguru naturalean. 40 kotxerentzako aparkalekua. ☎608 757228.

## GARAJEAK/LOKALAK
### errentan hartzeko

**DONEZTEBE**. Almazen gisa erabiltzeko lokal edo bajera ttiki baten bila Do-

# BASERRIA

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**
(otsailaren 14tik 21era bitarteko prezioak)

## ZERRIKIA



**Zerrikumea**
(19 kilo): 51 € (=)

**Zerri gizena**
1,200 € kiloa. (-0,026)

**Zerramak:**
0,650 € Kg/bizirik. (-0,010)

## BEHIKIA



**Aretze gizenak:**

| **Idixkoak:** | **€/kg. Kanal** |
|---|---|
| **Extra** | 4,37 |
| **1.koa** | 4,11 |
| **2.koa** | 3,96 |
| **Urruxak:** | **€/kg. Kanal** |
| **Extra** | 4,43 |
| **1.koa** | 4,15 |
| **2.koa** | 4,01 |

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

**Aretze ttikiak**
(15 egun ingurukoak):

**Aretze mestizoak:**
urruxak 120,00
idixkoak 210,00

**Aretze nabarrak:**
urruxak 140,00
idixkoak 150,00

**Zaldikoak:** €/k
Sortuberriak: 3,00/3,10
Zaldi-behorrak: 1,84/2,04

**Bildotsak:** €/k
6-8 kilokoak: 5,90/6,50
8-10 kilokoak: 4,60/5,30

neztebe inguruan. 50-70 $m^2$ inguru. ☎671 780503.

**MALERREKA**. Biltegi bezala erabiltzeko lokal edo bajera ttikiaren bila gabiltza. Sunbilla, Ituren, Zubieta, Elgorriaga inguruan. 40-50 $m^2$ tartean. Ez du beheko solairua izan beharrik. Lehenbailehen sartzeko. ☎671 780503.

## LURRAK/ORUBEAK
### erosi

**ARESO, LEITZALDEA, BORTZIRIAK, MALERREKA, BERTIZARANAN** etxea eraikitzeko lur-sail urbanizatua erosiko nuke, herrigunean edo herrigunetik hurbil. Berritzeko etxe zaharrak ere, bere orubearekin, balio dit. ☎655 738846.

## LANA
### eskaintzak

**IBARDIN**. Beola Etxean arropa-dendan frantsesa dakien pertsona bat behar da. ☎948 630709 / *beolaetxea@gmail.com*.

## LANA
### eskariak

**ELIZONDO**. Asteko lan egunetan, goizetan orduka lan eginen luke emakumezko batek. ☎608 371643.

**Ikasle** bat arratsalde edo asteburuetan lanean ariko litzateke eskualdean. ☎634 087451.

**ELIZONDO ETA INGURUAN** mutil gaztea lanerako prest: zamalanak egiteko, ostalaritza, lorezaintza, supermerkatuetan... ☎677 099329.

36 urteko **emakumea**, euskalduna, etxeko lanak egiteko edota gaixo edo menpekotasuna duten pertsonak zaintzeko prest. Gauez ere bai. Arduratsua, langilea, alaia eta pazientzia haundikoa. Lana ongi eginen dut. ☎627 967308.

**Gizonezkoa** prest dago eskualde osoan pertsona helduak zaintzeko (interno bezala), abeltzain izateko, mendiko lanak egiteko... ☎631 173893.

**Emakume bat** interna bezala lanean ariko litzateke haur edo pertsona helduekin. ☎618 686388.

**BERA**. Emakumea etxeko lanak egiteko edota adinekoak edo eriak zaintzeko prest dago. ☎671 420186.

## MOTORRAK
### saldu

**Audi A3** Sportback S-line quattro salgai, 113.000 km eta 140 zaldi txipeatua (172) bluetooth mugikorrarentzat. 2006koa. Whatsappak erantzuten ditut. ☎661 700379.



**Golf TDI** 4 Motion salgai. 1900cc. 143.000 KM. 2007.urtekoa. Buetooth. Ongi zaindua. ☎618 622034.



Merkatu Ttikiko iragarki gehiago hurrengo orrialdean ➜ 42

ttipi-ttapa
(0034) 948 635 458

JAKIN BEHARREKOAK

# Obedientziaren arriskuak



**Psikologia kontuak**
Saioa OSES GAINZA

Stanley Milgramek burututako esperimentu honetan, ikusi nahi zuten autoritateen aurrean gizakia zenbateraino izan daitekeen obedientea. Horretarako, hiru pertsonek parte hartu zuten: esperimentatzailea, kaleko edozein pertsona; irakaslea, ikerketa hau aurrera eraman zuena; eta hirugarren pertsona bat ere bazegoen, zeinarekin esperimentatzen zuten, kasu honetan ikaslea izena jarri ziotena.

Esperimentuaren helburua honako hau zen: ikusi nahi zuten noraino izan gaitezkeen obedienteak autoritateen aurrean, biktima sufritzen ari dela ikusita. Horretarako: irakasleak esperimentatzaileari esaten zion ondoko gelan, ikasle bat zegoela, eta deskarga elektrikoak eragin behar zizkiola. 75V eragiterakoan, ikaslea pixka bat kexatzen zen; 120V-rekin ozenago kexatzen zen; 150V-rekin eskatzen die berekin esperimentatzen ez jarraitzeko; 285V-rekin agonia garrasi bat botatzen du, eta minutu gutxi batzuk geroago ez du inolako soinurik egiten (esperimentatzaileek ez zekiten, baina gezurra zen, izan ere, ikasleak ez zuen inolako deskargarik jasotzen).

Ikaslea, irakaslearekin konpintxatuta zegoen, izan ere, esperimentatzaileek uste zuten deskarga elektrikoak bidaltzen zizkiotela, baina berez ez zen horrela, itxura egiten zuen deskargen aurrean kexatuz, esperimentatzaileak sinisteko deskarga elektrikoak eragiten zizkiotela.




Esperimentua aurrera eraman baino lehen, ikertzaileek hipotesi bat zuten: beraien ustez, esperimentatzaileen gehiengoak esperimentua bertan behera utziko zuen ikusita ikaslea sufritzen ari zela beraiek eragiten zituzten deskarga elektrikoengatik. Baina emaitzek ez zuten gauza berdina esan: esperimentatzaileen %85ek obeditu zuten esperimentua aurrera eramanez amaiera arte.

Beraz, emaitza hauek ikusirik, hausnarketa sakon bat egin dezakegu geure buruari galdera hauek eginez: noraino iritsi gaitezke autoritateei obeditzeagatik? Zergatik gara gai gure baloreen kontra joateko obeditzeagatik? Guztiz kontziente al gara obeditzen dugun guztiaz? Zeregin baten aurrean, ez al da hobeto lehendabizi arrazoitzea eta ondoren erabakitzea zer egin zuzenean obeditu baino lehen?

### ESALDIA

**«Hitzak askeak dira; jokabideak mutuak; obedientzia itsua»**

Johann Christoph Friedrich von Schiller.

bioener
energía sostenible

KOMERTZIALA BEHAR DA

Baztan-Bidasoa zonaldean biomasa bidezko (egurra, pelleta eta ezpala) berogailu instalazioak saltzeko

BIOENER · Itaroa Enpresa-gunea
Itaroa Urbanizazioa, 2 31620 HUARTE (Nafarroa)
T. 948 333 543 · 608 784 694 · jaimibir@gmail.com

RENAULT
SANTESTEBAN TAILERRAK
Leitzako errep. DONEZTEBE T. 948 450 282 F. 948 450 857 doneztebe@red.renault.es


MEGANE III TOM-TOM
DCI 105 CV
2010 urtekoa - 66.500 km


DACIA SANDERO LAUREATE
DCI 80 CV
2010 urtekoa - 30.000 km


CLIO III BUSSINES
1.5 DCI 70 CV
2009 urtekoa - 30.600 km


MEGANE II EMOTION
DCI 85 CV
2008 urtekoa - 81.500 km

ETA GAINERA:
SUZUKI SAMURAI 1.3 - 2.500€
SEAT CORDOBA 1.9 TD 90 CV
KANGOO EXPRESS CONFORT
DCI 70 CV - 58.400 km
MEGANE SPORT TOURER PRIVILEGE
DCI 160 CV - 61.700 km
KILOMETRO 0etan prezio ezin hobeak!!!

ttipi-ttapa | 609 zk.
2014.03.06

# urtebetetzeak

Argazki soila: **4€**; bikoitza: **8€**

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,36€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekea; 4) www.ttipi.net bitartez



**Markel Irazoki Agirre**k otsailaren 24an 4 urte bete ditu. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren partetik.



Berako **Iker Iparragirre Iriarte**k martxoaren 4an 8 urte bete ditu. Zorionak Berako familiaren partetik. Muxu handi bat.




Zugarramurdiko **Enekak** 6 urte beteko ditu martxoaren 4an. Aunitz urtez mununa!! Muxu haundia etxekoen partetik!



**Janire Urreaga Ibarrak** martxoaren 5ean 2 urte beteko ditu. Aunitz urtez eta muxu bat Elbete eta Sunbillako familia guztiaren partetik!



Goizutako **Oier Zabala Juantorenak** urtea bete du otsailaren 24an. Zorionak eta muxu haundi bat zure etxekoen partetik.



Iruñeko **Ugutz Etxeberria Irigoienek** 9 urte bete ditu otsailaren 24an. Zorionak Doneztebeko amatxi eta atautxiren partetik. Hemen dugu oparia zain. Zuk ekarri tarta eta prestatu belarriak!



Zubietako amatxi **Lourdes Elizalde Mitxelenak** urteak bete ditu otsailaren 19an. Muxu haundi bat bere biloba Nahiaren partetik. Prestatu pastela amatxi!



Leitzako **Egoi** eta **Enaut Bidart Zabaletak** urteak bete eta beteko dituzte martxoaren 16an eta urtarrilaren 17. Zorionak bikote eta muxu haundi bat aitatxo eta amatxoren partetik!! Aupa txapeldunak!



Arantzako **Ainhize San Juan Tabernak** 6 urte beteko ditu martxoaren 6an. Muxu bat Bera eta Arantza -ko familiaren partetik. Berendu goxoa prestatu!



Arantzako gure atautxi **Joxe Tabernak** urteak bete ditu otsailaren 27an. Zorionak zure biloba guztien partetik. Afari goxo-goxoa prestatu. Muxu aunitz.







Aunitz urtez **hirukote**! Martxoan sartuta a zer zortea gurea, gosaririk ez zaigu faltako! Ongi pasa zuen egunetan! Zuen lankideak.



Martxoaren 18an Labaiengo **Ane Telletxeak** 12 urte beteko ditu. Zorionak familiaren partetik eta egun on bat izan dezazula.




# MERKATU TTIKIA

948 63 54 58 · info@ttipi.net · www.ttipi.net

## ANIMALIAK

### salerosketak

**4 urteko ahari mutur beltza** salgai. ☎606 960237.

**Bi behi mestizo** salgai, umea egiteko puntuan. ☎634 655571.

**Poney arra** salgai. ☎637 993939.



## DENETARIK

### galdu-aurkituak

**BERA**. Herriko Etxe ingu - ruan giltza sorta bat aurkitu dute, haien artean hiru giltza Volvo markako ibilgailuarenak. Giltzatakoan Palanger jartzen du eta T. Belako SL enpresako iragarkia ere bai. ☎687 736971/647 759138 (Udaltzainak).

**BERA**. Legia karrikan mendiko bizikleta agertu da. Katea-Blkeko pegatina badu. ☎687 871431.

**LESAKA**. Giltzak aurkitu dira *mil curvas* inguruan, autobus gorri baten giltzarriarekin. ☎948 635458.

## DENETARIK

### salerosketak

**ORONOZ.** Egurra xehetua salgai. Pagoa eta haritza. Etxera eramanen da. ☎676 242520.



**SUNBILLA.** Su egurra salgai, lotean edo xehetua. ☎659 867287/ 699 461394.

**IRUN**. Taxi lizentzia salgai, jubilazioa dela-eta. ☎630 123959.

**Gasezko galdara** salgai, 3 urte ingurukoa. ☎675 714360.

**Tatami** berri-berria salgai. 250x200ekoa. Oso prezio onean. ☎610 213326.

**EZKURRA**. Alkazi piketeak salgai 2,50 eurotan. ☎600 699266.

**IRUN**. Titularraren heriotzagatik taxi lizentzia salgai. Saltzeko presa. ☎629 438753.

**URDAZUBI**. Harategia ixteagatik haragia xehetzeko makina eta haragia moztekoa salgai. Trifasikoak. Baita harategiko bertze tresnak ere. ☎948 599008.

**Bigarren eskuko trikitixa** bat erosiko nuke. ☎650 288515.


Sartu
gure web berrian
WWW.SILOTITE.COM
% 100 ZERBITZUA • % 100 KALITATEA • % 100 SEGURTASUNA •
Jatorrizko
5
kapa
Silo bolak
egiteko
plastikoa
SILOTITE
by formipac
FORMIPAC
• Edozein belar klasetan erabilgarria
• Aukeran 500 mm eta 750 mmtan
• Zulatzeko gogorra eta tiramenduetarako sendoa
• Elastikotasun ezin hobea
• Memoria elastiko bikaina
• Ongi itsikitzen dena
• Baldintza atmosferiko guztietan erresistentzia onekoa
eta UV egonkortasun handikoa
• Ingurumenarekin erasokorra ez den plastikoa
www.silotite.com
®SILOTITE
by formipac
Silotite®. Segurtasunaren aukera
AROZ-BERRI, S.A.
Tel. 948 581 021 / 948 580 258 - Faxa 948 452 103
irurita@arozberri.com - N-121 B errepidea, 46,7 kma - 31730 IRURITA
www.arozberri.com




**ttipi txartelarekin beti irabazten da !**

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA MUSUTRUK
-%25eko DESGRABAZIOA ERRENTA AITORPENEAN

eskatu zurea **948 63 54 58** telefonoan

Informazio gehiago:
TTIPI-TTAPA
Koskontako bidea 7, 31770 LESAKA
Tel. 948 635 458 | Fax 948 635 457
info@ttipi.net | www.ttipi.net

# deskontuak

FOTO – ARGAZKIAK GOIKO
**BERA** | %10 kopia digitaletan

JUAN J. PICABEA
DONEZTEBE
%10, marka batzuetan ezik

MASTER CADENA ALTZURI
**LESAKA** | %5 etxetresnetan

KIROLAK ZELA
**BERA** | %5eko deskontua

elikaC
**BERA** | %5 kontsultan

txinelka ZAPATADENDA
**LESAKA** | %10eko deskontua

# zozketak

**608. ALEKO IRABAZLEAK**

1- KAMISETA BAT | Onin Art
Karmentxu Zubiri | **ARIZKUN**
2- ENEKORA CDa | Txalapart
Delia Portillo | **DONAMARIA**
3- 3 SARRERA JABIER MUGURAZA | Berako kultur ETxea
Fausti Juanikorena | **ZUBIETA**
Jabier Zabaleta | **BERA**
Mª Carmen Ubiria | **LESAKA**
4- 2 LIBURU | Ibaizabal argitaletxea
A Elkartea | Sagrario Iturregi | **ORONOZ-MUGAIRI**
A Elkartea | Idoia Perurena | **URDAZUBI**
5- 3 LIBURU | Txalaparta argitaletxea
J.K Rowling | M. Itxaso Arretxea | **BERROETA**
Nire Turbantearen sekretua | Izaskun Perurena | **ELIZONDO**
Euskal Herria helburu | Estitxu Iparragirre | **ARANTZA**
6- 2 SARRERA | Donostiako Aquarium-a
Amaia Arretxea | **DONEZTEBE**

**1** KAMISETA BAT
Oninart denda
www.oninart.com

Oninart



**2** ENEKORA CDa
Txalapart
www.txalapart.com




**3** 3 LIBURU
Ttarttalo argitaletxea
www.ttarttalo.com

TTARTTALO




**4** 2 LIBURU
Elkar argitaletxea
www.elkar.com

elkar




**5** GU TA GUTARAK DVDa
Lanku
www.lanku.com

Lanku




**6** 2 SARRERA
Donostiako Aquarium-a
www.aquariumss.com

DONOSTIA / SAN SEBASTIAN AQUARIUM

